

KUDEAKETA MEMORIA

2018

VISESA

1. AURKEZPENA	6
2. AKZIODUNAK ETA ADMINISTRAZIO KONTSEILUA	8
3. MISIOA, IKUSPENA ETA BALIOAK	10

INTERES TALDEEKIKO KONPROMISOA ETA ERANTZUKIZUN

SOZIALA

4. INTERES TALDEAK	13
4.1. GIZARTEA: KONPROMISOA ETA ERANTZUKIZUN SOZIALA	14
• GARDENTASUN ATARIA	14
• IRAUNKORTASUN TXOSTENA	15
• ZERBITZUEN KARTA	15
• ARRISKUEN KUDEAKETA eta GOBERNU ARDURATSUA	16
• EMAS EUROPAKO ARAUDIA ETA UNE-EN ISO 9001 ETA 14001 ARAUAK	17
• DATUAK BABESTEKO EUROPAKO ARAUDIA	18
• KAPITAL ZURIKETEN PREBENTZIOA	18
• DELITUEN PREBENTZIOA	19
• HIZKUNTZA POLITIKA – EUSKARA	19
• JASANGARRITASUN ENERGETIKOARI BURUZKO DEKRETUA	20
• TOKIKO ERKIDEGOAN EGINDAKO INBERTSIOAK	20
• PERTSONA GAZTEAK LAN-MUNDUAN TXERTATZEKO LAGUNTZA	21
• ERAGILE SOZIALEKIN ETA IRABAZI ASMORIK GABEKO ERAKUNDEEKIN LANKIDETZA	21
• ELKARTASUN PROIEKTUAK	21
4.2: BEZEROAK	23
• KOKAPENA ETA HARREMANETARAKO DATUAK	23
• BEZEROEKIKO KOMUNIKAZIOA	24
4.3 ALIANTZAK, HORNITZAILEAK ETA LAGUNTZAILEAK	26
• GURE BALIO KATEA	26
• ESKER ONA	26

4.4. PERTSONEN TALDEA	31
• ORGANIGRAMA FUNTZIONALA	31
• EMAITZAK PERTSONENGAN	32
• PERTSONENGANAKO ARRETA	34

2018ko JARDUERA

5. VISESAren BILAKAERA	39
6. PROIEKTU ESTRATEGIKOAK	42
6.1. BOLUETA	42
6.2. ZORROTZAURRE	43
6.3. VEGA GALINDO	46
6.4. SmartEnCity. KOROATZE AUZOA BIRGAITZEA	48
7. SUSTAPENA	50
7.1. LURZORUAK	50
7.2. SUSTAPEN JARDUERA 2018an	50
• 2018an HASI ETA AMAITUTAKO ETXEBIZITZAK	53
7.3. ETXEBIZITZA BABESTUAREN ETA ELEMENTU LIBREEN MERKATURAT- ZEA 2018an	54
• PARTIKULARRENTZAKO ETXEBIZITZA BABESTUA	55
• ERRENTARAKO ETXEBIZITZA BABESTUA	58
• ETXEBIZITZA BABESTUA GUZTIRA	59
• ELEMENTU LIBREAK (Lokal, Garaje eta Trasteleku libreak)	59
• SALDU ONDOKO ZERBITZUA	61
7.4. BERRIKUNTZA, JASANGARRITASUNA ETA INDUSTRIALIZAZIOA	62
• ERAIKINEN ERAGINKORTASUN ENERGETIKOA ETA JASANGARRITASUNA	62
• ZERBITZU ENERGETIKOAK EMATEA	63
• INDUSTRIALIZAZIOA ETA HIRI GARAPEN JASANGARRIAK	64
• EUROPAKO PROIEKTUAK I+G+b	64

8. EITen KUDEAKETAN LAGUNTZEA - EuskoRegite	67
9. BARNE KUDEAKETA	68
9.1. KUDEAKETA AURRERAPENAK	68
9.2 DOKUMENTAZIOAREN KUDEAKETA	70
9.3 LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA	72
9.4 KUDEAKETA AURRERATUARI BURUZKO EUROPAKO ASTEA	73
9.5 BILTZARRAK ETA ARGITALPENAK	74
9.6 ZIURTAPENAK, AITORTZAK ETA SARIAK	76

VIESA

1. AURKEZPENA

Iñaki Arriola López, VISESAren presidentea

Carlos Quindós Fernández, VISESAren zuzendari nagusia

VISESAK, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari atxikita dagoen sozietate publikoa den aldetik, aurten ere herritarrei zerbitzua eskaintzen jarraitu du 3/2015 Legea betetzeko eta 2018-2020 aldirako Etxebizitzen Gida Planaren bidez garatzeko. Hortaz, errentan hartzeko babes publikoko etxebizitza sustatzen dugu eta hiria berronertzeko eta berritzeko proiektuak egiten ditugu.

Horren baitan, horren beharra dutela egiaztatzen duten kolektiboek etxebizitza duina, irisgarria eta egokia eskura dezaten bermatzeko Eusko Jaurlaritzak egindako apustu irmoan laguntzeko konpromisoari eusten dio VISESAK. Hori dena, lurraldearen oreka ardatz hartuta, pertsonen bizi kalitatea hobetzen laguntzeko eta lurralde jasangarria sustatzeko.

2018-2020 aldirako Etxebizitzen Gida Plarekin lerrokatuta, Plan Estrategiko berria definitu duen urtea izan da 2018a VISESArentzat. Beharrian hori dutela egiaztatzen duten pertsonen etxebizitza premiari erantzutea ahalbidetuko diguten helburu estrategiko eta operatiboak jaso ditugu Plan Estrategiko horretan. Ingurumenarekiko konpromisoa berresteko urtea ere izan da, EMAS erregistroa lortu dugulako, eta nahi eta nahi ez egokitu behar izan dugu izan diren lege aldaketa guztietara; Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 kontratazio Lege berria eta Datuak Babesteko Europako Araudi berria, kasu.

Jardueraren ikuspegitik ere urte bizia izan da. Vitoria-Gasteizko Koroatze auzoaren birgaitze energetikoko proiektua aipatu behar dugu. Amaierako balantze gisa, 742 etxebizitza SmartEnCity proiektuari atxikiak. Urtearen amaieran, lehenengo fatxada birgaitua ikusi ahal izan dugu Eulogio Serdán 4.ean. Horrekin, auzoaren irudi aldaketa osoa ikusten hasi gara; auzokoen bizi kalitatea hobetuko duen aldaketa, hain zuzen.

Bolueta, VISESAren beste proiektu garrantzitsu bat ere gauzatu dugula azpimarratu behar da. Azaroan eman genituen sustapen honetako giltzak. Boluetako 361 etxebizitzako proiektu horrek Passivhaus ziurtapena jaso zuen martxoan, Munichen izan zen Passivhaus Nazioarteko 22. Konferentzian, Alemaniako eraginkortasun energetikoko estandar zorrotza betetakoan. Aitortza hori are garrantzitsuago bihurtzen da babes ofizialeko etxebizitzak eta alokatzeko etxebizitza sozialak direla kontuan hartuta. Gaur egun, 88 metroko altuera eta 28 solairurekin, munduko PassivHaus eraikinik altuena da.

Zorrotzaurre eremua da VISESAren beste lan ildo garrantzitsuetako bat. Erronka han-

dia da, izan, eta 2018an mugari garrantzitsuak izan ditu: maiatzean ekin zitzaion San Inazio zubiaren eraikuntzari, VISESAk eraikitzen duen lehenengo zubia, hain zuzen, eta San Inazio auzoko erribera eta urriaz geroztik Zorrotzaurreko uhartea dena lotuko ditu. Irailean hasi zituen Kontzertazio Batzordeak EU1-A Faseko urbanizazio lanak, eta abuztuan, RD-3 partzelan sustatuko dituen prezio tasatuko 117 etxebizitzetarako proiektuaren erredakzioaren lizitazioa jendaurreratu zuen VISESAk.

Horrez gain, 2018-2020 aldirako Etxebizitzaren Gida Planean zehaztutako helburuak bete direla nabarmendu behar da, eta memoria honetan jarraian jasoko dugu.


Ezin ditugu ahaztu erronka hauek denak lortzeko ezinbesteko laguntza izan diren eragile publiko eta pribatu guztiak, VISESArako ezinbestekoak izan dira, eta eskerrak eman nahi dizkiegu horregatik. Eskerrik asko.

Eta Memoria honetan ikusiko duzuen bezala, 2018 bizi horren ostean, VISESAk berretsi egiten du etxebizitzaren funtzio soziala garatzeko konpromisoa, eta indarberritu egingo da 2019an lanean jarraitzeko.

2. AKZIODUNAK ETA ADMINISTRAZIO KONTSEILUA

VIRESA Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren mende dagoen sozietate publikoa da eta, beste erakunde batzuekin batera, Eusko Jaurlaritzak etxebizitza eta lurzorua gaineko lurralde politika garatzeko eta hiriak berroneratzeko eta berritzeko duen asmo irmoari laguntzen dio.

VIRESAren egungo kapital soziala 37,2 milioi eurokoa da, eta honela banatzen da titulartasuna:



Administrazio Kontseiluak kudeatzen, artezten, administratzen eta ordezkatzeko du VIRESA. Gutxienez hiru hilean behin eta enpresaren interesek eskatzen duten guztietan egiten ditu bilerak; horretarako, presidentek egiten du deia, bere ekimenez edo Kontseilukideen parte batek eskatuta. VIRESAren (VIVIENDA Y SUELO DE EUSKADI, S.A.) Administrazio Kontseilua honela osatuta dago:

- **PRESIDENTEA:**

Iñaki Arriola López

Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza sailburua

- **PRESIDENTEORDEA:**

Pedro Javier Jauregui Fernández

Etxebizitza sailburuordea

- **MAHAIKIDEAK:**

Paloma Usatorre Mingo

Zerbitzuetako zuzendaria

Mario José Yoldi Domínguez

Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen zuzendaria

Pablo García Astrain

Etxebizitza eta Arkitekturako zuzendaria

Hernando Lacalle Edeso

Aurrekontu zuzendaria

Pedro Martínez de Alegría Pinedo

KARTERA 1, S.L.

Oscar Eguskiza Sierrasesumaga

LABORAL KUTXA, S. COOP. DE CRÉDITO

Fernando Irigoyen Zuazola

- **VISESAREN ZUZENDARI NAGUSIA:**
Carlos Quindós Fernández
- **IDAZKARI EZ KONTSEILARIA:**
Alberto Arzamendi Ceciaga

3. MISIOA, IKUSPENA ETA BALIOAK

**VISESaren Egitekoak, Ikuspegiak eta Balioek definitzen dute haren izateko funt-
sa**, haren nahiak eta kudeaketa lehentasunak eta interes taldeekin erlazionatzeko mo-
dua.

EGITEKOA

Babes publikoko etxebizitza promozioko produktuak/zerbitzuak eskaintzea, errenta-
zein hiri birgaitze/berritze araubidean, 2018-2020 aldirako Etxebizitzen Gida Planean
adierazitako etxebizitza-beharrak asetzeko, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailarekin
eta Euskal Autonomia Erkidegoko beste eragile publiko eta pribatu batzuekin koordina-
tuta, jasangarritasun, eraginkortasun energetiko eta irisgarritasun irizpideen arabera
jokatuz.

IKUSPEGIA

EAEko funtsezko eragile izatea etxebizitza politika publikoa eta hiri-birgaitzea eta -be-
rritzea aurrera eramateko orduan, 2018-2020 aldirako Etxebizitzen Gida Plana garat-
zen lagunduz, zerbitzu publikoa ematen dien kolektibo ezberdinen etxebizitza-beharrei
egokitutako produktu- eta zerbitzu-zorroa izanda, eta eredu jasangarrian oinarrituta.

BALIOAK

- Gardentasuna, herritarren parte-hartzea eta ebaluazioa.
- Efizientzia eta etengabeko hobekuntza.
- Errespetua eta tolerantzia.
- Lankidetzaren artean nahiz eragile sozial eta ekonomikoekin.
- Iraunkortasuna.
- Berrikuntza.
- Etxebizitza-parkea mantentzearen inguruko kontzientziario eta kultura.
- Erraztea eta komunikatzea.
- Irisgarritasun unibertsala.
- Zerbitzu publikoa.
- Gizarte- eta ekonomia-inpaktua.

Gainera, hori guztia portaera nabarmengarri batzuen bidez gauzatu nahi dugu; hala
nola:

- Babesa.
- Lankidetzaren artean nahiz eragile sozial eta ekonomikoekin.

- Bezeroaren ikuspegia.
- Ilusioa.
- Konfiantza.
- Zorroztasuna eta ordena.

**INTERES TALDEEKIKO KONPROMISOA ETA
ERANTZUKIZUN SOZIALA**

4. INTERES TALDEAK

VISASaren interes talde identifikatuak honako hauek dira:

- **Akziodunak:**

- Eusko Jaurlaritza (Etxebizitza Saila, Ogasun Saila eta beste batzuk).
- Finantza-erakundeak.

- **Bezeroak:**

- Babes publikoko etxebizitzan eta birgaitzeen azken erabiltzaileak.
- Etxebizitza Sailburuordetzari atxikiriko sozietateak: Alokabide.
- Gure Zerbitzu Energetikoez hornitzen diren erkidegoak.
- Elementu libreen erosleak.

- **Hornitzaileak:**

- Lurzoruaren hornitzaileak.
- Obra, zerbitzu eta horniduren hornitzaileak.

- **Aliatuak:**

Enpresak, Erakundeak eta Zentro laguntzaileak.

Partaide gaituzten elkarteak.

- **EAEko sektore publikoa eta beste erakunde batzuk:**

- Etxebizitza Sailburuordetza, Etxebizitzan Euskal Zerbitzua (Etxebide), Alokabide, Erosketa eta Hornikuntzen zerbitzua, Kontrol Ekonomikoko bulegoa, Artxibategi Nagusia, Funtzio Publikoa, Herri Kontuen Euskal Epaitegia eta bestelako Sektoreko Administrazio eta erakundeak (URA, IHOBE...).

- **Erakunde publiko eta pribatuak:**

- Aldundiak eta udalak.
- Arartekoa, Emakunde, AECC, GKEak...

- **Erakuntzaren sektoreko elkargo profesional eta elkarteak.**

- **Gizartea, oro har:**

- Herritarrak

- **Komunikabideak (prentsa, sareak, webgunea, agentziak...)**

- **VISESA osatzen duten pertsonak.**

4.1. GIZARTEA: KONPROMISOA ETA ERANTZUKIZUN SOZIALA

VISESAk Egitekoan bertan adierazi du gizartearekiko konpromisoa, eta Enpresaren Erantzukizun Sozialaren ikuspegitik, konpromiso hori gauzatzeko hainbat ekimen lantzen ditu, erantzukizuna eta kudeaketaren gardentasuna lortzeko bidean.

GARDENTASUN ATARIA

Visesa-k, Gardentasun-atari honekin, beste urrats bat egin du hiritarren zerbitzura jokatzeko konpromisoan, eta ikuspegi bikoitza eman dio; alde batetik, balio publikoa sortzea eta, bestetik, bere funtzioak betetzeko baliabide publikoen erabileran eta erabaki-hartzeetan gardentasunaren kultura eredu hartzea.

VISESAk Q-epea (Kudeaketa Aurreraturako Euskal Erakunde Publikoak) gardentasun taldean hartzen du parte, eta bertan, publizitate aktiboaren ebaluazio eredu bat definitzeko, mantentzeko eta hobetzeko ardura du.

2017an, Q-epea osatzen duten erakundeetan aplikagarri diren araei dagokienez % 87,27ko betetze maila zuen VISESAk, batez besteko orokorraren gaineratik (% 71,70). Konparazio ariketa hori bera egin ondoren, bide horri jarraitu dio 2018an zehar, eta betetze maila % 89,09koa izatera iritsi da, batez bestekoaren gaineratik (% 83,03).

Beste alde batetik, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko sektore publikoko erakundeek gardentasunari loturik dituzten betebeharren betetze maila baloratzeko taula osatu zen 2017an, eta ebaluatutako 23 gardentasun-betekizunak bete zituen.

Kanpoko balorazio horiek ikusita, konbentziturata dago bere jarduerari eta gobernu onari buruzko informazio nabarmena argitaratzeak (publizitate aktiboa), baita herritaren informazio eskaerei arreta egiteak (informazio publikoa jasotzeko eskubide eskaerak) ere herritarrek VISESArekin duten konfiantza indartuko dutela, eta gainera, horrela herritarrengan bere eremuko gai publikoetan parte hartzeko kultura pizten lagunduko duela uste du.

2018an, Gardentasun Ataria berritzeko lanean aritu gara; herritarrentzat irisgarriagoa izango da, eta 2019an argitaratuko da, VISESaren webgune berriarekin batera.

IRAUNKORTASUN TXOSTENA

Iraunkortasun Txostena VISESAk bere borondatez eskaintzen duen izaera publikoko txosten bat da, eta ikuspegi sozial, ekonomiko eta ingurumenaren ikuspegitik erakundeak eta bertako jarduerak duten posizioa jasotzen da bertan. Finantza informazioa eta kudeaketa memoria jasotzen dituen txostenaren osagarria da; bi urtean behin argitaratzen da, eta akziodunei, bezeroei, pertsoneri, aliatuei eta gizarteari oro har zuzenduriko proiektu, onura eta ekintza sozialen berri ematen du.

Txostena erantzukizun sozialaren komunikazioaren oinarria da, eta ezaugarri duen gardentasun printzipioaren adibidea ere bai. Global Reporting Initiativek (GRI) sustatzen duen eredu nazioartean onarpen handiena duen estandarra da, eta VISESaren iraunkortasun txostena egiteko aukeratu da.

3. Iraunkortasun Txostena 2018an argitaratu da, eta 2013tik 2017ra arteko datuak jaso dira bertan. Datuak bi urtean behin eguneratu eta argitaratzeko konpromisoa du VISESAk.

La memoria de sostenibilidad es pública y accesible a través de la página web www.visesa.eus

ZERBITZUEN KARTA

Gardentasunari buruzko araudiari eta Eusko Jaurlaritzaren gobernu arduratsurako gidan jasotzen diren betekizunei arreta egiteko, Zerbitzuen Karta definitzeko eta lantzeko hobekuntza proiektua jarri zuen abian VISESAk 2014an, eta Zuzendaritza Batzordeak 2015ean onartu zuen.

Zerbitzuen Karta lanerako metodologia, tresna bat da, eta VISESAk bezeroekin dituen konpromisoak argitara ematea du helburu; horrela, bezeroen eskubideen erabateko eraginkortasuna eta haien betebeharrei buruzko informazioa bermatzen du.

Kartaren kalitate gorena bermatzeko, UNE 93200 arauaren betekizunak eta Q-epea lantaldeak zehaztutako irizpideak hartu zituen kontuan VISESAk.

Erreferentzia gisa erabilitako bestelako arau, eredu eta erabilitako bestelako betekizunei jarraikiz, eta definituriko zerbitzuen kartaren kudeaketarako sistematikak xedatzen duen bezala, urtero landu behar da Zerbitzuen Kartako konpromisoak betetzearen in-

guruco balorazio txostena, urtean lortutako emaitzen arabera, eta ez-betetzerik egon bada, proposatutako neurri zuzentzaileen inguruko ekintza plana.

2017ko abenduan itxi zen VISESAren Lehenengo Zerbitzuen Kartaren bizi-zikloa, ziklo itxierako txostenarekin (gardentasun atarian eskura daiteke).

Gainera, zerbitzuen karten kudeaketarako sistematika kontuan hartuta, 2017an barneko auditoria bat egin genuen:

- VISESAren dokumentu teknikoak erreferentziako betekizunak betetzen dituela egiaztatzeko (Gardentasun Legea, Gobernu Arduratsurako Gida, UNE 93200 araua).
- Hobetzeko eremuak eta ekintza plana identifikatzeko.
- Ondorioak identifikatzeko.

2018an zehar, azken urteetako asebetetze inkestetan lortutako emaitzetan oinarrituta, bezeroek zer sustapen premia edo iguripen zituzten aztertzen aritu gara, gure bigarren Zerbitzuen Kartan jasotako konpromisoekin lerrokatzeko.

2018ko maiatzean, Zerbitzuen Kartaren dokumentu teknikoaren lehenengo berrikuspina eta hori kudeatzeko sistematika onartu zituen VISESAko Zuzendaritza Batzordeak. VISESAren Gardentasun Atarian dago eskuragarri.

Horrez gain, sektore publikoko beste erakunde batzuen Zerbitzuen Kartaren kanpoko ebaluazioa egiten hartu genuen parte abuztu eta irailean, Q-epea eta Euskalitekin batera jardunez euskal erakunde publikoen kudeaketa aurreratuaren sustapenean.

ARRISKUEN KUDEAKETA eta GOBERNU ARDURATSUA

2009 urteaz geroztik, Eusko Jaurlaritzaren “Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakunde, sozietate eta fundazioen gobernu arduratsurako gida”, Kontrol Ekonomikorako Bulegoak gidatua, lantzen du VISESAk. Gida horretan, erakundearen kudeaketa ekonomikoa, ingurumenari dagokiona eta kudeaketa soziala eraginkortasunez gauzatzeko hainbat alderdi lantzen dira, Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako (ELGA) Antolakundeak zehazten dituen gardentasun eta gobernu egokirako printzipioak betez.

Aldi berean, “Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoko Erakunde, Sozietate eta Fundazioen Barne Kontroleko Funtzioa ezartzeko eta garatzeko esku liburua” jarri du martxan VISESAk, arriskuen kudeaketa eta barneko kontrolerako sistema ezarriz.

Hiru hilean behin, Eusko Jaurlaritzaren Kontrol Ekonomikorako Bulegoari ematen dio bi gida horien ezarpen mailaren berri VISESAk.

2013an egin zen kanpoko auditoriaren arabera, VISESAk % 62,5ean betetzen zuen Gobernu Arduraturako gida -gainerako erakundeen batez bestekoa % 58,66 zen- eta Barneko Kontrolerako Eskuliburuaren kasuan, betetze maila % 62,25ekoa zen gainerakoen % 60,48aren aldean. Auditoria egin ondoren, hobetzeko hainbat arlo identifikatu ziren, eta gidak betetzen aurrera egiteko ekintza plan bat definitu genuen.

2016an, autoebaluazioa egin zen bi gida horiekiko posizionamendua zein zen jakiteko; eta Barneko Kontroleko gidaren betetze maila % 77,5ekoa eta Gobernu Arduraturako gidarena % 74koa zirela ondorioztatu zen; beraz, berretsi egin zuen VISESAk alderdi horietan lanean jarraitzeko konpromisoa.

Azkeneko bi urteotan autoebaluazioaren ondoriozko ekintza plana landu da. Gobernu Arduraturako Gidan aurrerapauso handia eragingo luketen ekintzak identifikatu dira, eta beste hobekuntza ekintza eta proiektu batzuk ere bai, VISESA gidak % 100ean betetzera iristeko beharrezkoak izango direnak.

EMAS EUROPAKO ARAUDIA ETA UNE-EN ISO 9001 ETA 14001 ARAUAK

Kudeaketarako Sistema Integratua du VISESAk; urtero ikuskatzen da eta UNE-EN ISO 9001:2015 eta UNE-EN ISO 14001:2015 arauekin ziurtatuta dago, eta EMAS 1505/2017 Europako Araudiak aldarazi duen EMAS 1221/2009 Europako Araudira egokituta dago. Sistema hori ezarri izanak bermatu egiten du aplikagarriak diren kalitate eta ingurumen betekizunak beteko direla, eta prozeduren eta jarraibideen sistematizazioa eta ingurumena babesteko eta erakundearen jardueraren ondoriozko inpaktuak gutxitzeko etengabeko hobekuntzarekiko konpromisoa gauzatzen du.

VISESA EMASen erregistraturik dagoen enpresa da. EMAS Araudiak euren ingurumenarekiko portaera neurtzea, ebaluatzea, horri buruz informatzea eta hobetzea ahalbidetzen die erakundeei, eta horretara konprometitzen ditu. VISESAk urtero betetzen du ziklo hori EMAS Ingurumen Adierazpenaren bidez, eta interes taldeen eskura jartzen du berori gardentasun atariaren bidez: (www.visesa.euskadi.eus/gardetasun-ataria/). EMAS erregistroa izatearen onuretako batzuk dira honako hauek:

- I. Ingurumenaren kudeaketari dagokionez, segurtasuna, ordena eta koherentzia eskaintzen ditu; eta, ondorioz, ingurumenarekin loturiko alderdien kudeaketa eraginkorragoa lortzen da.

- II. Ingurumen istripuen arriskua murrizten da, horiek eragiten dituzten jarduerak hobeto ezagutzen eta kontrolatzen direlako.
- iii. Ingurumenari loturiko jarduerak gauzatzeko laguntza publikoak jasotzeko aukerak handitu egiten dira.
- IV. VISESAko pertsonen eta guk jarduten dugun udalerrietako herritarren ingurumenarekiko kontzientzia, motibazioa eta heziketa pizten ditu.
- V. Ingurumenaren Kudeaketarako Sistemak ezarrita, eredu izaten laguntzen du jarduten dugun enpresa-ehunean.
- VI. Herritarren, aliatuen, erakundeen eta inbertsiogileen aurrean gure irudia hobetzen laguntzen du.

Ingurumenaren Kudeaketarako Politikan jasotzen diren konpromisoak garatzeko, ezartzeko, berrikusteko eta egunean izateko beharrezkoak diren antolamendu egitura, jardueren plangintza, erantzukizunak, jardunak, prozedurak, prozesuak eta baliabideak definitzen ditu VISESAk.

DATUAK BABESTEKO EUROPAKO ARAUDIA

2018an, bertako jarduera Datuak Babesteko Europako Araudiak (DBEA) xedatzen duenera egokitzeko eta interes taldeen (langileak, bezeroak, laguntzaileak...) datuak babesteko xedez, prozedurak, klausulak, kontratuak eta bestelako tresnak ezarri ditu VISESAk. Hasteko, Datuak Babesteko Eskuordea (DBE), Segurtasun Arduraduna, DBE pertsonaren laguntzailea eta fitxategien barneko arduradunak izendatu ditu; denak, VISESAko langileak.

VISESAn, Datuak Babesteko oinarritzat prebentzioa hartuta, erakundearen dokumentazio guztia aztertu dugu, eta honako ekintza hauek gauzatu ditugu: informazio klausulak gehitu dira, hala eskatzen duten kontratazioetan tratamenduaren arduradunaren kontratuak finkatu dira, VISESAko pertsonak eguneroko lanean kontsultak egin eta haiei arreta egiteko zerbitzua jarri da Intranetean, eta DBEren eta interes taldeen arteko komunikazioa erraztu eta haien eskaerei erantzuteko helbide elektroniko bat gaitu da.

VISESAko barneko arlo guztietan 64 kontsulta hartu dira kontuan 2018an.

KAPITAL ZURIKETEN PREBENTZIOA

Kapital Zuriketen Prebentzioari eta Terrorismoaren finantzaketari buruzko apirilaren 28ko 10/2010 Legean xedatzen dena betetzeko, hainbat neurri eta prozedura ezarri ditu VISESAk; hala nola:

Barneko Kontrol eta Komunikaziorako Organoa (BKKO) sortzea.
BKKOren Antolakuntza eta Jarduera Araudia definitzea.
Kapital Zuriketarekin loturiko operazioak ezagutzeko, prebenitzeko eta eragozteko,
"Kontrol eta Komunikazioko Barne Prozeduretarako Eskuliburua" definitzea.
Bezeroak onartzeko politika zehaztea.

Aipatutako eskuliburu eta prozedurak ezarrita eta eguneratuta daude, eta VISESAk egi-
ten dituen jardueri erantzuten diete.

BKKOri dagokionez, 2006ko maiatzaren 2an sortu zuen Administrazio Kontseiluak, eta
Erregelamendu batean jasota daude haren funtzioak.

Beste alde batetik, 2017ko ekitaldiari dagokion Kanpoko Adituaren Urteko Txostena az-
tertu eta balioztatu zuen Administrazio Kontseiluak, 2018ko martxoaren 26ko bilkuran;
eta ekitaldian zehar ezarri den 2018ko Jarduera Plana onartu zuen.

Horrez gain, Kapital Zuriketaren Prebentzioaren inguruko formazio saioa egin dute VI-
SESAko langile guztiek.

DELITUEN PREBENTZIOA

2016ko martxoaren 26ko Administrazio Kontseiluaren bilkuran honako hau erabaki
zen: "indarrean dagoen zigor legeriak eskatzen dituen prebentzio eta kontrol progra-
mak ahalik eta epe laburrenean presta daitezen beharrezko jarduerak gauzatzeko es-
katzea Zuzendaritza Nagusiari".

Agindu hori betetzeko, PWC enpresaren laguntza kontratatu zen 2016ko maiatzean,
Delituen Prebentziorako Eredua lantzeko. 2016ko abenduan eman zitzaion VISESAri
Diagnostikoa (arriskuen matrizea eta kontrolen matrizea) eta proposatutako Ekintza
Plana jasotzen zituen dokumentua.

2018ko ekitaldian zehar, proposatutako ekintzetako batzuk gauzatu dira, eta 2019an
zehar amaitzea aurreikusita dago.

HIZKUNTZA POLITIKA - EUSKARA

VI. Euskara Plana onartu da 2018an. Hori dela eta, 2018-2022 plana lantzen jardun du
VISESAk, eta 2018aren amaieran lortu da erabat definitzea.

Aurreko urteetako ildoan, VISESAk 32 pertsona matrikulatu ditu, eta formazioa jasotzen

ari dira, euskaraz gaitzeko eta euren lanpostuetan erabiltzeko gaitasuna garatzeko.

VISESAk euskara sustatzeko eta erabiltzeko konpromisoa du; eta Euskaraldia ekimenaren lehenengo edizioaren antolakuntzan hartu du parte. Erakundeko pertsonak oso harrera ona egin diote ekimenari.

JASANGARRITASUN ENERGETIKOARI BURUZKO DEKRETUA

Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren jasangarritsaun energetikoari buruzko 178/2015 Dekretua onartu zen 2015eko irailaren 22an. Hori dela eta, VISESA neurriak hartzen ari da bertako azpiegituretan nahiz bere jardueretan aurrezki eta energia eraginkortasuna handitzeko. Pertsonak eta Zerbitzu Orokorak sailaren kasuan, baliabide energetikoen zentzuzko kontsumoa ahalbidetzeko, eraginkortasun energetikoari buruzko klausulak txertatzen hasiak gara kontratazioetan. Beste neurri interesgarri bat da erakundearen ibilgailu parkeari gas likuatuko lehenengo ibilgailua atxiki izana; eta horrez gain, bi bizikleta elektriko ere erosi ditugu Vitoria-Gasteiz hiri barruko joan-etorrietarako.

TOKIKO ERKIDEGOAN EGINDAKO INBERTSIOAK

VISESA eragile garrantzitsua da eraikuntzaren eta eraikingintzaren sektoreko jarduera ekonomikoan; eta EAEko eragile publiko eta pribatuen mobilizazio ekonomikoan laguntzen du; hala jasota dago honako taula honetan; gastuen kontzeptuan 2018an egindako ordainketak jaso dira.

Kontzeptua	Zenbatekoa
(mila euro)	26.194.293,41 €
Obra ziurtapenak	26.194.293,41 €
Lurzorua	6.449.444,02 €
Interesak eta finantza-gastuak	1.529.664,52 €
Sukaldeak	502.145,84 €
Teknikarien ordainsariak	1.215.584,64 €
Laguntza teknikoak (entseguak, kontrol teknikoa eta salmenta ondokoa)	883.534,41 €
Aseguruak	526.530,47 €
Konponketak - Gremioak	1.641.255,84 €
Udal-zergak	879.053,66 €
Alokairuak	374.856,88 €
Sustapenen zaintza	205.328,69 €

Aholkularitzak eta auditoriak	126.717,18 €
Notarioak eta erregistroak	381.768,35 €
GUZTIRA	40.910.177,91 €

PERTSONA GAZTEAK LAN-MUNDUAN TXERTATZEKO LAGUNTZA

2018 urtean, pertsona gazteak lan-munduan txertatzen laguntzen jarraitu dugu; honakoan, bi lagun izan ditugu VISESA-n Novia Salcedo Fundazioaren bitartez. Horietako bat Sail Teknikoan eta bestea, Ekonomia eta Finantzen Sailean.

ERAGILE SOZIALEKIN ETA IRABAZI ASMORIK GABEKO ERAKUNDEKIN LANKIDETZA

VISESA-n lokalak dinamizatzeko planaren barruan; hain zuzen, gizarte eta ikerketa lanak egitea xede duten eragile sozialekin eta irabazi asmorik gabeko erakunde publiko edo pribatuekin lankidetzan jarduteari dagokionez, honako kontratu hauek ditu hitzartuta VISESAk:

- AECCrekin (Gipuzkoako Probintzia Batzordea) hamar urteko errenta-kontratua Eibarreko lokal batean, elkartearen Debabarrenako eskualdeko egoitza kokatzeko. Hartara, informazio eta kontzientziatzea errazteaz gain, ikerketa onkologiko osatuetan gaixoei eta haien senitartekoei laguntza eta babes eskainia hartzaz godo diete.
- HURKOA fundazioarekin, lokal baten errenta-kontratu bat erosteko aukerarekin, Morlans auzoan (Donostia). Hurkoa fundazioak, egoera larrian, mendeko egoeran edo babesik gabe dauden pertsona nagusi eta/edo gaixotasun mentala dutenei arreta, babes eta laguntza ematen die, Gipuzkoan batik bat.

ELKARTASUN PROIEKTUAK

Elkartasuna balio garrantzitsu eta funtsezkoa da; hori dela eta, VISESAko pertsonak, zeinek bere izenean, garabidean dauden herrialdeei laguntzen jarraitzen dute. VISESAk bultzatu egiten du nolabait eraikingintzarekin zerikusia duten eta, ahal den heinean, emakumearen garapena eta ahalduntzea eragingo duten elkartasun proiektuetan parte hartzea.

2018an, nutrizio zentro bat eraikitzeko proiektuari lagundu diogu. Zentroa Kashushan eraiki da, Kongoko Errepublikako Sud-Kivu probintzia osatzen duten zortzi lurraldeetako batean, Bukavu hiritik 40 kilometrora. 2018ko ekainean inauguratu zen

proiektua.

2018an, seigarren aldiz jarraian jardun dugu Religiosas Misioneras del Divino Maestro izenekoekin lankidetzan. Misiolari horiek abian jarritako proiektu guztiek bultzatzen dute bertako pertsonen parte hartzea; hori dela eta, oso eragin handia dute proiektu horiek bertako familien garapenean.

Era berean, eraikuntza proiektuan eta zentro nutrizionala martxan jartzeko proiektuan parte hartu duten pertsona askoren bilakaera profesionala ere ekartzen dute. Honako honek, inguruko familien osasuna hobetzen lagunduko du.



Gainera, bestelako elkartasun jarduera batzuk ere egiten ditugu; hala nola: odola emateko kanpainak, jostailu bilketa eta jantokiko zerbitzuan geratzen dena behar duten kolektiboetara ematea.

4.2. BEZEROAK

KOKAPENA ETA HARREMANETARAKO DATUAK

VISESak EAEn barruan ematen ditu zerbitzuak, eta 3 bulego ditu bezeroei tokian-tokian arreta egiteko. Bulegoetan harrera zerbitzua dago, eta pertsonen informazioa emateaz gain, VISESAn lan egiten duten pertsonengana bideratzen dituzte bisitariak.



Bezeroari Arreta Egiteko Bizkaiko bulegoa

San Vicente, 8 – behea (Sarrera Uribitartetik)
48001 Bilbo

Bezeroari Arreta Egiteko Gipuzkoako bulegoa

Errotaburu pasealekua, 1-7 20018 Donostia

Vitoria-Gasteiz, Araba/Álava bulego nagusia

Gamarrako atea, 1A 2. Solairua (El Boulevard eraikina)
01013 Vitoria-Gasteiz

Bezeroari Arreta Egiteko Arabako bulegoa

Gamarrako atea, 1A . behea (El Boulevard eraikina
– sarrera Zaramaga kaletik) 01013 Vitoria-Gasteiz

Bezeroei arreta egiteko bulegoak (BAB):			Bulego nagusia:
Arabako BAB: Tel.: 945 214 038 Faxa: 945 241 609 gasteiz@visesa.eus	Bizkaiko BAB: Tel.: 946 612 620 Faxa: 944 241 989 bilbao@visesa.eus	Donostiako BAB: Tel.: 943 326 340 Faxa: 943 326 341 donostia@visesa.eus	Tel.: 945 214 050 Faxa: 945 068 440 visesa@visesa.eus
Ordutegia: Astelehenetik ostegunera: 8:30-14:00 eta 15:00-16:30. Ostiraletan: 8:30-14:00			

VISESaren saldu ondoko arreta zerbitzua:
Tel.: 902 350 035 Faxa: 902 350 005 sap@visesa.eus
Ordutegia: Astelehenetik ostiralera: 8:30-20.00

BEZEROEKIKO KOMUNIKAZIOA

VISESAn lurraldeko bulegoen bidez, call-center (telefono bidezko arreta) zerbitzuaren bidez eta bestelako komunikazio kanaletatik (web, fax, etab.) egiten diegu arreta herritarrei; sustapen batek irauten duen ziklo osoan sor litezkeen kontsultei edo gertaera orokor edo teknikoei kasu egiteko. Era berean erantzuten dira modu partikularrean zein erakunde ofizialen bidez (Arartekoa, Zuzenean, Ordezkaritzak, etab.) aurkezten diren intzidentziak.

• WEBGUNE BIDEZKO HARREMANA

VISESAk webgune bat du herritarrek erabil dezaten, eta www.visesa.eus webgunerako bisiten kopurua mantendu egiten da aurreko urtekoen aldean; 22.858 saio eta 129.101 orri bisitatuta.

VISESAREN webguneari buruz bezeroek egin duten batez besteko balorazioa 3,5koa da 1etik 5erako eskalan.

• ZOZKETAK

Etxebizitzen esleipena gardentasunez egitea funtsezkoa da VISESARENTZAT. 2018 urtean, zuzenean eman dira Bilbao-Bolueta (190 BOE) eta Barakaldo-Avda. Altos Hornos (72 BOE) sustapenen zozketak Irekia www.irekia.euskadi.eus webgunearen eta VISESAREN www.visesa.eus webguneen bidez.

• ESLEIPENEN JAKINARAZPENAK ETA JABEEN ERKIDEGOEN ERAKETA

Salmentan dauden edo erosketa aukera duten errentako etxebizitzek 622 esleipen jakinarazpen egin dira bezeroei arreta egiteko bulegoetatik, eta jakinarazpen horietatik, 222k muzin egin diote esleipenari. Bezeroari arreta egiteko bulegoetan 1.424 hitzordu lotu dituzte 2018an.

Sustapenetan 2 jabeen erkidegoren eraketa kudeatu du VISESAK 2018an:

Sustapena	Eraketa data	Lekua
B-043 Bolueta 108 BOE	2018/12/03	Bilbo
G-061 Hondarribia 32 BOE	2018/12/11	Hondarribia

• **ETXEBIZITZA PILOTUAK ETA ATEAK ZABALTZEKO EGUNAK**

2018an ez da atek zabaltzeko egunik ez etxebizitza pilotuen irekierarik izan VISESAren sustapenetan; izan ere, 2018an eman diren etxebizitza babestuko bi sustapenetan, hiru hilabete lehenagotik ere, % 96 eta % 100 artean salduta zeuden jada. Beraz, ez da etxebizitza pilotuaren beharrik izan.

• **SALDU ONDOKO ARRETA**

Intzidentzia teknikoak bezeroak jakinarazi eta VISESAk sustatutako etxebizitza edo elementu libre baten eraikuntza-itxura, akabera edo funtzionamenduari eta abarri buruzko intzidentziak dira. Intzidentzia horiei arreta egiteko, Saldu Ondoko Arreta zerbitzua daukagu, konponbidea bilatu eta berriro gerta ez daitezen ekintzak finkatzeko.

2018an 2.516 telefono dei jaso dira (aurreko urtean baino % 48 gutxiago), eta 2018 urtean zehar eskainitako zerbitzuaren maila % 94ra iritsi da, (iazko % 92ko datua hobetuz).

Era berean, 1.601 mezu elektronikoko jaso dira sap@visesa.com helbidean; hau da, aurreko urtean baino % 59 gutxiago.

• **GOGOBEKETZE INKESTAK**

2018an ez zaie gogobetetze inkestarik egin bezeroei, ekitaldi horretan ez delako galde-egia egiteko sustapenik izan.

• **HIGIEZINEN SALOIAK**

Higiezin Saloiak huts egin ezineko hitzordua dira VISESArentzat. 2018an, Euskadiko Higiezin Saloiak Sestaoko Vega Galindo sustapena izan zuen ardatz; VISESArentzat estrategikoa da sustapen hori, gauzatzeko eta merkaturatzeko ahalegin handia egin baitu.

Boluetako PassivHaus etxebizitzak ere ezagutarazi dira, etxebizitza batean ibilbidea egiten duen 3D bideo baten bidez. Informazio hori eta Passivhaus etxebizitzaren erabilerrari buruzko gomendioak jasotzen dituen bideo tutoriala VISESAren webgunean daude.


4.3. ALIANTZAK, HORNITZAILEAK ETA LAGUNTZAILEAK

GURE BALIO KATEA

VIRESA ezinbesteko tresna da Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza politikan, eta Etxebizitza Sailarekin eta Alokabiderekina batera, sinergia interesgarriak sortzen dituen balio katea osatzen du: lurzorua erosi, kudeatu eta urbanizatzen; euskal herritarrentzat kalitateko etxebizitzak sustatzen, eta Euskal Autonomia Erkidegoko babes ofizialeko etxebizitza askoren errenta kudeatzen.

Helburu nagusia da euskal herritar guztiek kalitateko etxebizitza prezio eskuragarrietan edukitzeko eskubidea gauzaterik izan dezaten.

Horretarako, erakundearen Zuzendaritzak Kalitatearen Kudeaketa, Laneko Arriskuen Prebentzioa eta Ingurumenerako Sistema Integratua diseinatu eta ezarri du, Euskaliten Kudeaketa Aurreratuko Ereduari begira, eta erakundearen beraren eremu eta jarduera guztiak hartzeaz gain, bere helburuak lortzen laguntzeko.



ESKER ONA

VIRESAko akziodunei, Etxebizitza Sailburuordetzari, Lurralde Ordezkaritzei, Alokabideri eta EAEko sektore publikoa osatzen duten erakunde eta instituzioei eskerrak emateaz gain, VIRESAki esker ona adierazi nahi die 2018an, berarekin batera lan egin eta lankidetzan jardun duten hornitzaileei, enpresa aliatuei eta laguntzaileei.

Proiektuaren egileak:

ABITURA ARQUITECTOS S.L.P.	HIRILAN ARKITEKTURA HIRIGINTZA, SLP.
AGUILAR Y VARONA ARQUITECTOS ASOCIADOS	IDOM Proyectos Integrados
AN+EL ARQUITECTOS ASOCIADOS, S.C.P	I-INGENIA
ARKAIA ARQUITECTOS	ITAU
BAT (BILBAO ARCHITECTURE TEAM)	SAN JUAN ARQUITECTURA
BIDEIN Ingeniería	SOLA, TORRES VIDAURRAZAGA ARQUITECTOS S.L.P
COOPERATIVA ARQUITECTURA	TYPSA
DEURBE ARQUITECTOS	USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO
ESTUDIO URGARI	UTE ARQUIPLAN-ARRIARK
ERRO AMARO TECNICOS EN ARQUITECTURA	UTE URGARI (XABIER URANGA Y MIGUEL MERINO)
GAUSARK	VART ARQUITECTOS
GERMAN VELAZQUEZ	WARQS OFICINA DE ARQUITECTURA

Eraikuntza-enpresak:

ALTUNA Y URIA	KURSAAL
BYCAM SERVICIOS, EDIFICIOS E INFRAESTRUCTURAS	LURGOIEN, S.A.
CONSTRUCCIONES AMENABAR	SACYR
CONSTRUCCIONES MOYUA SL	SUKIA, S.A.
CONSTRUCCIONES OLABARRI	VUSA, VALERIANO URRUTIKOETXEA
EXBASA OBRAS Y SERVICIOS S.A.	UTE GAIMAZ INFRAESTRUCTURAS-ELECTRICIDAD MARTIN
FERROVIAL-AGROMAN	

Kontrol Teknikorako erakundeak:

APPLUS NORCONTROL, S.L.U.	ECA, ENTIDAD COLABORADORA DE LA ADMINISTRACIÓN, S.A.U. (BUREAU VERITAS)
ASEFA OCT	EUROCONSULT NORTE
BSP CONSULTORES	LABIKER INGENIERIA Y CONTROL DE CALIDAD
C.P.V. CONTROL TÉCNICO Y PREVENCIÓN DE RIESGOS, S.A.	OCA ICP CONSTRUCCIÓN

Segurtasun eta Osasun alorreko koordinatzaileak:

ANTONIO MAÑOSO PEREZ	EUROCONTROL
BPG COORDINADORES	INGECOR
BSP CONSULTORES	NASERGES
CPV-CONTROL TECNICO Y PREVENCIÓN DE RIESGOS, S.A.	RCS ARQUITECTURA Y PREVENCIÓN

CUALTIS	SERVASCO
EUROCONSULT NORTE, S.A.	SYMAT ASESORÍA TÉCNICA, S.L.P.

Entsegu laborategiak:

APPLUS NORCONTROL, S.L.U.	GIKESA
EPTISA Cinsa, GRUPO EP	GEOLOGIA Y GEOTECNIA LARREA SL
EUROCONSULT NORTE, S.A.	LABIKER, S.L.
EUSKONTROL, S.A.	LABORATORIO GOBIERNO VASCO
FUNDACIÓN TECNALIA	

I+G+b proiektuetako laguntzaileak:

ACCIONA INFRAESTRUCTURAS	ESTUDIOS GIS
AIMPLAS	EVE
AGRUPACIÓN CLUSTER DE ELECTRODOMÉSTICOS	FUNDACIÓN CARTIF
ARMINES - ASSOCIATION POUR LA RECHERCHE ET LE DÉVELOPPEMENT DES MÉTHODES ET PROCESSUS INDUSTRIELS (FRANCIA)	GIROA
AYUNTAMIENTO SONDERBORG (DINAMARCA)	GOBIERNO DE ROGALAND (NORUEGA)
AYUNTAMIENTO TARTU (ESTONIA)	IHOBE
AYUNTAMIENTO DE VITORIA-GASTEIZ	LABORATORIO GOBIERNO VASCO
CENTRO DE ESTUDIOS AMBIENTALES (CEA)	MONDRAGON CORPORACIÓN COOPERATIVA
CENTRO TECNOLÓGICO EMI (HUNGRÍA)	OHL - OBRASCÓN HUARTE LAIN
DNA IN DE BOUW (PAÍSE BAJOS)	OBERON KONZEPTBAU (BULGARIA)
eERG (END-USE EFFICIENCY RESEARCH GROUP) POLITECNICO DI MILANO (ITALIA)	PASSIVHAUS INSTITUTE (ALEMANIA)
ENAR	TECNALIA

Salmenta ondoko zerbitzua:

ARQUITECTA ANDREA TRESPADERNE	BELAKO LANAK, SL
ARQUITECTO JESÚS CAÑADA	CONSTRUCCIONES URRUTIA, S.A.
ARQUITECTO JOSÉ CAMPILLO	GIROA-VEOLIA
ARQUITECTO OSCAR GOMEZ	XUPERA, S.A.
FUNDACIÓN TECNALIA	

Bazkideak

ACLIMA	E2B A
APD	INNOBASQUE
ARABAKO EUSKARA BATZORDEA	JUNTA DE CONCERTACIÓN BOLUETA

AVS-AVS Euskadi	Q-EPEA
COMISIÓN GESTORA ZORROTZAURRE	RED DE ENTIDADES PÚBLICAS EN FAVOR DE LA IGUALDAD
ERAIKUNE	RIS3 EUSKADI
EUSKALIT	

APIAK:

BERMEO INMOBILIARIA BAI, S.L. (BERMEO)	INMOBILIARIA MACIAS (GERNIKA)
EKOS SERVICIOS INMOBILIARIOS (ARRASATE-MONDRA-GON)	INMOBILIARIA DEL VALLE DEL DEBA S.L. / AUKERA INMOBILIARIA (EIBAR)
ETORKI ETXEAK INMOBILIARIA, S.L. (DERIO)	INMOBILIARIA PASAI GIETALIA , S.L. (PASAIA)
INMOBILIARIA IRUÑALAN, S.L. (LLODIO)	INMOBILIARIA Y SERVICIOS DEL DURANGUESADO, S.L. (DURANGO)
INMOBILIARIA KASSETAS (BASAURI)	PORTAL INMOBILIARIO FOTOCASA
INMOBILIARIA LANDAKO (AMURRIO)	PORTAL INMOBILIARIO IDEALISTA
EUSKALIT	

Beste laguntzaile batzuk:


AENOR INTERNACIONAL S.A.U.	INGENIERIA DE SEGURIDAD DE VITORIA Y ALAVA
AIERBE COMUNICACION	IÑAKI BERAZA CAMPILLO
AQUA SERVICE	ITS
ALAMO Consulting	IVAP
ALDATU	JOTAMAS EVENTOS
AON GIL Y CARVAJAL, S.A.U.	KILGORE PRODUCCIONES
ARTEZ	LANBIDE
ASG TECHNOLOGIES GROUP	LANKIDEGO LANTALDE
AUSOLAN	LEASE PLAN
BASKEGUR	LIMPIEZAS ABANDO
BENITO BRAGADO ALVAREZ	LIMPIEZAS CLECE
BIDEBI	LKS
BILBOMATICA	LUIS ANGEL GOMEZ
BK CONSULTING	LYRECO
BOGA CONSULTORES	MARSH S.A.
CADESK SIMULATION	MBN COMUNICACION
CAMPO Y OCHANDIANO	MIRANDAOLA SERVICIOS AMBIENTALES
CIUDADANO KANE COMUNICACION	MOVISTAR
CM NORTE	MUDANZAS EL BARCO

COLEGIO OFICIAL DE ARQUITECTOS VASCO-NAVARRO	MUTUALIA
COLEGIO OFICIAL DE APAREJADORES	NACEX
COLEGIO VASCO DE ECONOMISTAS	NEXUS AUDIOVISUAL
CUSTAR	ONDOAN
DATO ECONÓMICO	PAPERPRINT
DELOITTE	PC COMPONENTES Y MULTIMEDIA
DIGISYSTEMS	PIXELWARE, S.A.
EDP COMERCIALIZADORA	PKF ATTEST ITC
EJIE	PRODUCCIONES MIC
EKAIN ABOGADOS, S.A.	RADIO VITORIA
EMANA	S2G SERVICIOS GENERALES DE GESTIÓN
E-RENTING	SAFETIC ASESORES LEGALES
ERCISA-AZAFATAS ERCILLA	SCANBIT
ESCOR	SAICA NATUR
ESCUELA EUROPEA DE COACHING	SEGURMA
ETXEKIT	SER
EUSKALTEL	SERVATAS
F4KT	SESTAOBERRI
FUNDACION NOVIA SALCEDO	SIEMENS
GARRIGUES ABOGADOS	SOASA
GESEPRO	SOCIEDAD ESTATAL DE CORREOS Y TELÉGRAFOS
GUREAK MARKETING	SONORA ESTUDIOS
GRUPO URBEGI	SVC
HIRU LAN DA LAN	TECNITASA SERVICIOS DE TASACION
HORI	TELBASK
HOSTECK	TELEFÓNICA MOVILES
IBAI SISTEMAS	UDABERRIA EUSKALTEGIA
IBERDROLA	UNIPREX
IBM	UTE AON -EGIASA
IKUSPYME	VEISS COMUNICACION
ILUSTRE COLEGIO DE ABOGADOS DEL SEÑORIO DE BIZKAIA	VENTICLIMA
ILUSTRE COLEGIO NOTARIAL DEL PAIS VASCO	WOKO CREATIVOS
IMQ	ZAINDU KONPONDU

4.4. PERTSONEN TALDEA


ORGANIGRAMA FUNTZIONALALA

VIESAko pertsonen taldea 87 lagunek osatzen dute; 2018ko abenduaren 31n, laneko kontratu finkoak eta aldi baterakoak dituzte, eta 7 Arlo funtzionaletan banatuta daude, ondoko organigraman ikus daitekeen bezala:




EMAITZAK PERTSONA KOPURUTAN


• PLANTILAREN BANAKETA ERANTZUKIZUNAREN ARABERA




• PLANTILAREN BANAKETA ANTZINATASUNAREN ARABERA



• **PLANTILAREN BANAKETA ADINAREN ARABERA**



• **PLANTILAREN BANAKETA KONTRATU MOTAREN ARABERA**



PERTSONENGANAKO ARRETA

• BERDINTASUNA

Berdintasunari dagokionez, VISESAren 2014-2017 I. Berdintasun Planaren aldia igarota, eta EAEko VII. Berdintasun Plana onartuta, 2018 urtea azterketarako eta bigarren berdintasun plana lantzeko izan da; plana joan den abenduan aurkeztu zion Berdintasun Batzordeak Zuzendaritzari. 2014-2018 aldian jasotako datuen arabera, VISESA aurreraturik dago eta urratsak egiten ari da berdintasunaren alorrean; ahalegina egiten dugu gure eguneroko jardunean genero-ikuspegia txertatzeko, horrela, emakumeen eta gizonen arteko dibertsitateko errespetua eta berdintasuna bermatzeko. Sentsibilizazio eta formazio ekintza garrantzitsuak egin ditugu (jazarpenari eta lengoia inklusiboari buruz, etab.), eta berdintasun batzordea berriro dugu arlo guztietako ordezkariak txertatuta.

Horrez gain, lehenengo aldiz, berdintasuna sustatzeko klausula sozialak jaso dituzten pleguak eta kontratuak gauzatu ditugu 2018an. Horrekin guztiarekin, jarrera arduratsu eta berritzailean kokatu nahi dugu VISESA, erakunde publiko garen aldetik, berdintasunarekin konpromiso irmoa erakutsiz.

• OSASUNAREN PREBENTZIOA ETA LANEKO SEGURTASUNA

Laneko osasun eta segurtasunarekin duen konpromisoaren ildoan, higadura emozionalari hautemateko inkesta bat bideratu du VISESAk 2018an, eta inkesta hori aztertzeko eta ekintzak abian jartzeko lan-taldea sortu du. 2016. urtean egindako inkesta psikosozialaren azterketa du abiapuntu ekimen horrek. Halako egoerei aurrea hartzeko, besteak beste, oso garrantzitsua da ohitura osasungarriak edukitzea. Hori dela eta, estresa kudeatzeko eta elikadura-ohiturak hobetzeko ikastaroak gehitu ditugu formazio planean, eta luzaketak, pilates eta ariketa hipopresiboak egiteko ikastaroak abian jartzea babesten eta kudeatzen dugu.

Nutrizioaren eremuan eta eguneko catering zerbitzuari dagokionez, 2018. urtean kalitate handiagoko produktuak gehitu ditugu, menu osasungarri eta orekatuagoak eskaintze aldera. Menuen aukeran, gainera, jaki bakoitzaren elikadura-balioari buruzko informazioa gehitu dugu.

Osasunaren eta segurtasunaren alorrean, VISESAren beste lehentasunetako bat instalazioak egungo beharrezanetara egokitzea eta, ergonomiari dagokionez, gero eta eskaera zorrotzagoei erantzutea da. Hori dela eta, Bilboko bezeroen arretarako bulegoa aldatzeko lanean jarraitu dugu 2018an, eta VISESAk Ametzola auzoan dituen lokaletan

kokatuko den bulego berria egokitzeko, proiektu arkitektonikoaren kontratazioa egin dugu. 2018ko abenduan hasi ziren obrak, eta 2019ko ekainean amaitzea aurreikusi da.

• **LANEKO HARREMANAK**

2017 urtean legegintzaldia eta Zuzendaritza Nagusia aldatu genituen, eta oinarria sendotzeko eta datozen lau urteetarako estrategia orientatzeko eta finkatzeko balio izan du horrek. Bigarren urte hau, 2018a, aldaketa urtea izan da, eta erakundeko pertsona guztien ahalegina eta egokitzapena izan dira beharrezkoak horretarako.

2018ko urtarrilean antolamendurako eskema eta organigrama funtzional berria onartu genituen, VISESAren jarduerari Vitoria-Gasteizeko Koroatze auzoa birgaitzeko proiektua atxikitzeko. VISESAren jarduera nagusiari, etxebizitza publikoaren sustapenari, alegia, erantzun egokia emateko egitura bat sortu dugu, eta, horrez gain, Koroatze auzoko proiektuaren gero eta baliabide eskaera handiagoari erantzuteko.

Horretarako, urtean zehar eta apurka-apurka, profesionalen kopurua handituz joan gara, eta 2017ko 72,34 laguneko batez besteko plantilatik, 80,71 laguneko plantilara igo gara 2018an.

Lehenengo hiruhilekoan, VISESAren jardueraren eta helburuen aurreikuspenaren berri eman zien erakundeko pertsona guztiei Zuzendaritza Nagusiak; dena 2018-2020 aldirako Etxebizitzaren Gida Planari lotuta.

Oinarriak eta helburuak finkatuta, 2018 urtean, pertsonen gogobetetzea neurtzeko inkesta egin dugu; bertan, pertsonen kudeaketa egokirako eta, ondorioz, VISESAren helburuak betetzeko, funtsezkoak diren alderdien inguruko gogobetetzea jasotzen da. Datuen arabera, gogobetetzea igo egin da alderdi gehienetan, eta gogobetetze maila orokorra 3,53koa da 5eko gehieneko indizean. Ondoko taulan, alderdi bakoitzari dagokion gogobetetze maila jaso dugu. Azpimarratu behar dugu alderdi guztiak gogobetetze atalasearen (3.00) gainetik daudela; maila horretatik aurrera jotzen baita pertsona gogobeteta dagoela.

ALDERDIA	2014	2018
LAN-BALDINTZAK	3,79	4,16
KONPENTSAZIOA /ORDAINSARIAK	2,88	3,48
GARAPEN PROFESIONALA ETA AITORTZA	3,43	3,55
LANAREN ANTOLAMENDUA ETA BANAKETA	3,47	3,42
INFORMAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA	3,39	3,27
PARTE-HARTZEA	3,32	3,39
LANEKO GIROA	3,42	3,65
ZUZENDARITZA ESTILOA	3,80	3,83
ERAKUNDEAREN ESTRATEGIAK, HELBURUAK ETA ETORKIZUNA	3,10	3,32
VISESAN DUEN INTEGRAZIOA	3,77	4,11
ALDAKETAREN KUDEAKETA	3,33	3,58
INGURUMENAREN KUDEAKETA	3,67	3,79
GIZARTEAN DUEN ERAGINA	3,78	4,03

Eskala E 1:5

• KOMUNIKAZIOA

Barneko komunikazioa funtsezko tresna estrategikoa da VISESAn, langileei erakundearen helburuak, erakundeak bultzatzen dituen balio estrategikoak, lorpenak eta helburuen betetzea behar bezala helarazteko eta ondo egindako lanaren aitortza eta hobetu beharreko puntuen identifikazioa kudeatzeko.

VISESAk bere bide guztiak erabiltzen ditu integrazioaren kultura sortzeko, pertenezia zentzua eta leialtasuna pizteko eta proiektu partekatu bateko kide sentiarazteko, eta, gainera, langileengan segurtasuna eragiteko, talentuari bertan eusteko ezinbestekoa baita.

Horregatik jarraitu dugu ohiko bideak erabiltzen, barneko komunikaziorako estrategia lortzeko balio digutelako:

- Intranet korporatiboa: hedadura handiko berrien komunikazioa.
- Berezi Bilera: jardueraren segimendurako, koordinaziorako eta antolakuntzarako bilerak.
- Sail bakoitzaren aldizkako bilerak, arloko interes orokorreko informazioa emateko.
- Zuzendaritza Nagusiarekin aldizkako bilerak: plan estrategikoaren segimendua-

ren berri emateko eta zuzendaritza aitzindari duten jarduera eta proiektu berriak jakinarazteko.

• EZAGUTZAREN KUDEAKETA

Formazioari dagokionez, 2018an, jardueren bolumenetan neurtuta, formazio planaren burutzapena % 40,55ekoa izan da, eta % 59,25era igo da planean hasieran aurreikusi ez eta onartu eta egindako jarduerak kontuan hartuz gero. 2017ko datua baino apur bat altuagoa da. Pertsona bakoitzeko batez besteko kopuruak urteko 76 ordukoa izaten jarraitzen du.

Pertsonen % 100ek egin du formazioa, eta partida horretarako onartu zen aurrekontuaren % 100 erabili da. Formazio ekintzen batez besteko balorazioa 6,95ekoa da (Eskala E 0:10).

2018ko JARDUERA

VISESak agerian utzi nahi du gardentasunarekin duen konpromisoa eta Interes Talde guztiekin partekatu nahi ditu mugarririk garrantzitsuenak eta jarduera hasi zuenetik igaro diren urte hauetan guztietan lortutako emaitzarik adierazgarrienak.

5. VISESAren BILAKAERA

Jarraian, herritarrentzako zerbitzua hobetzeko etengabeko bilakaeran, VISESAk izan dituen mugarri eta aitortzarik nabarmengarrienak jaso ditugu:

1990	VISESA sozietate publikoaren sorrera (Euskadiko Etxebizitza eta Lurra, e.a. - Vivienda y Suelo de Euskadi, s.a.).
1992	VISESAren operatiboaren hasiera.
1994	Gure lehenengo sustapena ematea: 373 BOE Intxaurrendon (Donostia).
1996	Ziurtapen energetikoa gure sustapen guztietan txertatu genuen.
2000	BBK, Kutxa, Vital eta Laboralkutxa gure akziodunei atxiki zitzaizkien, eta Orubide eta Alokabide sozietateak sortu ziren (VISESAren % 50eko partaidetzarekin).
2000	ISO 9001 ziurtapena lortu genuen, kalitatea kudeatzeko sistemagatik.
2002	EAEko etxebizitza hutsaren mobilizazio-programaren hasiera (Bizigune programa).
2003	COAVN saria, eraikuntza obrarik onenari: 168 etxebizitza sozial Lakuan (Vitoria-Gasteiz).
2005	Eusko Jaurlaritzak Zilarrezko Qa eman zigun, kudeaketaren bikaintasunagatik.
2005	ISO 14001 ziurtapena lortu genuen, ingurumena kudeatzeko sistemagatik.
2007	10.000 etxebizitza hasia lortu genuen, eta 5.000 etxebizitza eskrituratu genituen EAEn.
2008	Euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketagatik Zilarrezko Bikain ziurtapena jaso genuen.
2008	Bermeoko 50 BOEn sustapena IISBE (Internacional Initiative for Sustainable Built Environment) erakundeak hautatu zuen "Eraikin Jasangarrien Munduko Konferentzian – SB08" Espainia ordezkatzeko.
2009	EHAEOren Arkitekto Urbanisten Euskal Herriko Elkarteak saria eman zion Boluetako gure proiektuari, "Hiria, Urbanismoa eta Ekologia"ren XI. edizioan.
2010	Aedipe-Human- Capital Humano saria pertsonengan oinarrituriko berrikuntzari (Administrazio Publikoen kategorian). 10.000 etxebizitza ematera iritsi ginen.
2010	VISESAk Salburua auzoan sustatu dituen 432 etxebizitza babestuen PIME's proiektua hautatu du Europako Batzordeak I+G+b 7. Programa Markoaren barruan, haren egikaritzea kofinantzatzeko, egoitzarako garapen jasangarriaren eredu gisa.
2010	OPEN HOUSE proiektua hautatu zuen Europako Batzordeak eraikinen jasangarritasuna ebaluatzeko Europako metodologia garatzeko eta ezartzeko I+G+b 7. Programa markoaren barruan. Programa hori 2013an itxi zen.
2011	Babes publikoko etxebizitza amaituen urteko errekorra – 5.473 etxebizitza -, VISESAri dagokio kopuru osoaren herena.
2011	VISESA eta UPV-EHUKo Arkitektura Departamentuak lankidetzeta hitzarmena sinatu zuten industrializazioari eta babestutako etxebizitzari buruzko tailer bat eta ikerketa talde bat martxan jartzeko.

2012	Zerbitzu Energetikoen Prestazioa jarduerari ekin genion, etxebizitzan 400dik gora jaberekin kontratuak sinatuta.
2012	Gardentasuna eta zerbitzua hobetzeko, kontratazio espedienteak argitaratzen hasi ginen Kontratazio Publikoa Euskadin atarian (kontratatzaileren profila).
2013	Eraikuntza jasangarriari saria. Gaztela eta Leongo Juntaren IV. saria, egoitzako etxebizitza kolektiboa kategorian, Bermeoko 50 BOE bioklimatikoaren sustapenari.
2013	Laneko prebentzioari lotuta, ekimen publiko onenaren saria, Arkitektura Teknikoa eta Eraikuntzako Segurtasunerako Europako XVI. Sarietan.
2013	Merkaturatzeko modu berriak diseinatu eta abian jarri genituen: errenta erosteko aukerarekin eta ordainketa geroago egiteko erosketak.
2013	Endesa saria 2013ko higiezinaren sustapen jasangarriarenari, Bermeoko 50 BOE bioklimatikoaren proiektuagatik.
2013	Europako Batzordeak OSIRYS proiektua hautatu zuen, etxebizitzan barruko airearen kalitatea hobetzea ahalbidetzen duten eko-materialak garatzeko, I+G+b 7. Programa markoaren barruan.
2014	EuskoRegite plataforma abian jarri zen Etxebizitza Sailburuordetzari zerbitzua emateko.
2014	Etxebizitza Babestuko Jardunbide Onenen AVS Saria: VISESAk sustatutako 242 BOEko proiektua errendimendu altuko proiektutzat hartu da eraikin jasangarriaren alderdi guztietatik, eraikinaren kontsumoa ia zero (NZEB) eta kalifikazio energetikoa A dituelako.
2014	Mutualia Sariaren VI edizioan akzesita, VISESAk laneko segurtasun eta osasunaren arloan egiten duen kudeaketa eta prebentzio lanagatik.
2014	Nazio Batuen Jardunbide Onen Nazioarteko X. Lehiaketa (Dubai 2014). "BILBO-BOLUETA: PERTSONENTZAKO HIRIGINTZA. Hiriaren berroneratzea eta inguru naturala berreskuratzea" jardunbidea aurkeztu zen eta BEST kalifikazioa lortu zuen. Gainera, Finalisten Zerrendan (SHORT LIST) sartu zen.
2015	Orubide Integrazioa: Orubideren argitalpena eta aholkularitza jardueraren salerosketa kontratua sinatu eta Orubideren plantila VISESAren eta Alokabiden subrogatzea.
2015	Europako Batzordeak SmartEnCity (Koroatze auzoa) birgaitze proiektua onartu zuen. Proiektua hiri-guneetan bizi-kalitatea iraunkorki hobetzeko eraginkortasun energetiko, garraio eta IKT alorrean konponbide orekatu eta integratuak identifikatzeko, garatzeko eta gauzatzeko "Smart Cities and Communities SCC1-205 (H2020)" deialdian aurkeztu genuen. Gasteizko Koroatze auzoan erakustaldia egin genuen.
2015	VISESAren Gardentasun Ataria argitaratu genuen.
2016	Boluetako 108 BOE + 63 ES eta 190 PTEen fatxadak aukeratzeko parte-hartze prozesua.
2016	San Inazioko zubiaren lizitazioa abenduan (VISESAren lehenengo zubia).
2016	PCTI EUSKADI 2020. 5 Ildo eta Arlo Estrategikoetan parte hartu genuen. Eta 2. "Zaharberritze integrala eta hiriaren berroneratzea" bultzatu genuen.
2017	SmartEnCity-Koroatze auzoa proiektua aukeratu zuten Euskadi 2020 "Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza (PCTI) Planaren 2017ko 10 proiektu enblematikoetako bat.

2017	"NZEB berriak eraikitzeke eta diseinatzeko kostua eta bizi-zikloaren kostu osoa murrizteko metodologia orokor bat garatzeko "Kontsumo ia nuluko eraikin berrietan kostuak murrizteko" EE-13-2016 deialdian aurkeztutako "AZEB Towards Affordable Zero Energy Buildings" proiektua onartu zuen Europako Batzordeak.
2017	EAEEn, eskrituratutako 14.500 etxebizitzako kopurua gainditu genuen.
2018	Munduko PassivHaus etxebizitza babesturik altuenaren sustapena eman genuen. Bilbo. (Bolueta 108 BOE + 63 ES).
2018	Zurezko egituradun etxebizitza babestuko sustapena eman dugu. Hondarribia. Europako zurezko egituradun egoitzarako eraikinik altuena.
2018	VISESA EMAS Europako Ingurumen Erregistroan ziurtatu da.

6.1. BOLUETA

“Bolueta” Bilboko 421 Banaketa Eremurako proiektua Bilboko Metropoli inguruan erabili gabe zeuden industria-lurzoruak gizartearen mesederako berreskuratzeko premia-tik sortu zen. Urbanismoaren ikuspegitik hondatuta dagoen eremua berreskuratzeaz gain, esku-hartzeari esanahia ere eman nahi zaio. Estrategikoki, gaur egungo degradazio-egoera iraultzeko aukera gisa sortu da proiektua, Eremu horren berroneratze integrala proposatuta. Proposamenak lotura estua du ibaiarekin, inguru naturala funtsezko hiru eremutan berreskuratzeko helburu zehatzarekin: eremu arkitektonikoa, eremu mikrourbanoa eta eremu sektoriala. Proiektu horretan, gainera, Administrazio Publikoek sustatzen duten Etxebizitza Soziala sortzen da; guztira, 1.100 etxebizitza proiektatu dira, eta horietatik 608 etxebizitzari babes publikoko araubideren bat ezarriko zaie. Proiektuak ezaugarri dituen hainbat alderdi azpimarratzen ditu: energia-aurrezpena eta eraikuntzarako material natural eta osasuntsuak erabiltzea.

Eremu horretan hainbat lehiaketa publiko egin dira kudeaketa urbanistikorako dokumentuak lantzeko, urbanizazio proiektuen erredakziorako eta 1 faseko eraikuntza-proiektuen erredakziorako, araubide orokorreko 298 eta araubide bereziko 63 etxebizitza babestu horien fasea eraiki ahal izateko.

2014an behin betiko onartu zen urbanizazio proiektua, eta lizitazioa egin ondoren Ex-basa/Amenabar ABEEri esleitu zizkion A Fasearen urbanizazio lanak Kontzertazio Batzordeak.

Aldi berean, 108 BOE eta 63 ESren eraikuntza-obren lizitazioa egin zen 2014ko azaroan. 108 BOE eta 63 ESren eraikuntza-obrak 2015eko martxoan esleitu zitzaizkion Construcciones Sukia Eraikuntzak, SAri.

2018an, eraikuntza honen (108 BOE eta 63 ES) kronologia honako hau izan da: otsailean eraikuntza obren amaiera sinatu zen, ekainean Sukia Eraikuntzak S.A.ri hartu zitzaion obra. Irailean, Obra Berriaren Eskritura Publikoa sinatu zen, eta azaroan hasi ginen etxebizitzak bezeroei ematen.

Beste alde batetik, 2017ko apirilean, 190 PTEn eraikuntza-obren lizitazioaren esleipena eta merkaturatzea ezeztatzea erabaki zen, eta 2017ko martxoan iragarkia bidali zen DOUEra 190 BOEen eraikuntza, eranskinak eta atxikiriko urbanizazio lizitatzeko. Sustapen hori Construcciones Sukia Eraikuntzak S.Ari esleitu zitzaion. 2018ko urtarrilean hasi zituzten eraikuntza-obrak, eta 2020ko lehenengo sei hilabetekoan amaituko direla aurreikusita dago.

Etxebizitzaren tipologia eta proiektuaren garapen-faseak (2018ko abenduaren 31n) honako taula hauetan jaso dira:

ETXEBIZITZAK GUZTIRA	TIPOLOGIA			
	BOE	ES	PTE	EL
680	352	63	193	72

ETXEBIZITZAK GUZTIRA	1. FASEA		2. FASEA		3. FASEA	
	RE-1A1	RE-1A2	RE-3A	RE-3B	RE-4B	RE-4C
680	298 BOE	63 ES	54 BOE	90 PTE	72 EL	103 PTE

BOE: Babes ofizialeko etxebizitza – **ES:** Etxebizitza soziala – **PTE:** Prezio Tasatuko Etxebizitza – **EL:** Etxebizitza librea

6.2. ZORROTZAURRE

Zorrotzaurre eremua izen bereko penintsulan dago; San Inazio eta Deustu auzoen aurrian, eta ekialdean Deustuko Kanala eta mendebaldean Nerbioi ibaia ditu mugakide.

Guztira 838.781,25 m²ko hedapena dauka eta Bilboren hiri-bilakaerarako azken aukera da; beraz, jarduera hori Zorrotzaurrekoarekin osatzeko aukera dauka udalak, eta horrela, udalerriri espazio berritzailea eta ezaugarri bereziak dituen eskainiko dio; horri esker, Bilbok protagonismoa berrituko du nazioartean. Zorrotzaurreko Plan Berria Zaha Hadid (Pritzker Saria 2004) arkitekto ingeles-irakiar ospetsuak diseinaturiko Master Plan Batean oinarritua da, eta plan horri auzoko jendearen, elkarten, alderdi politikoen, eta abarren ekarpenak gehitu zaizkio.

2004an lehenengo Master Plana egin zenetik, Zorrotzaurrerako proiektu jasagarria diseinatzea izan da helburua; hau da, bertan egingo diren jardueren ingurumena errespetatzea eta iraunkorrak izatea, hurrengo belaunaldiek ere goza dezaten.

Dagoen hiria berrerabiliz, orain arteko Bilbo eraldatzeko filosofiari jarraituz, Zorrotzaurreko proiektuarekin narriatuta dagoen eremu bat birgaituko da kalitateko hiri-espazio berri bihurtzeko. Gainera, Deustu eta San Inazio auzoak osatzen lagunduko du eta hiri-guneko erriberako pasealekuei jarraitutasuna emango die.

Planaren elementu nagusia Zorrotzaurre uharte bihurtzea da. Kanala zabaltzeko erabakia egindako hainbat azterketa hidraulikoen ondorioa da, Bilbon uholde arriskua murrizteko kanala zabaltzea beharrezkoa dela berretsi baitute azterketa horiek. Kanala irekitzearen onurak Zazpi Kaletaraino iritsiko dira.

Zorrotzaurre diseinatzeko erabilerak eta dentsitateak nahasi dira, hiri garapen tinkoa eta mugikortasun jasangarria ahalbidetzeko. Uhartean bi auzo egongo dira, mutur bannatan, biak autosufizienteak. Bietan egongo dira hainbat jarduera: etxebizitza, saltegiak, bulegoak, ekipamendu publikoa, aisialdirako guneak, etab.

Zorrotzaurre (Eremu Mistoa) berriaren bi herenek erabilera publikoa izango dute, 155.893 m² espazio libre eta publikoetarako partzeletarako 84.936 m²-ko zuzkidura barne, eta horietan kokatuko dira ekipamenduak (hezkuntzakoak, osasun alorrekoak, kirolekoak eta kulturalak).

Hasieran, Planean 5.800 etxebizitza eraikitzea aurreikusten da; horietatik erdia babes-tuak (BOE eta tasatuak, eta horietako asko VISESArenak dira), bai eta 201.360 m² eraiki ere jarduera ekonomikorako. Hala ere, datu horiek behin betiko etxebizitza kopurura egokituko dira eremuaren garapenaren arabera.

Horrekin guztiarekin eta oinezkoak, bizikletak eta garraio publikoa lehenesten dituen mugikortasunarekin eta inguruaren memoria zainduta (egoitzakoa, industrialak eta portu-jarduerakoa), auzo berria leku aparta izango da bizitzeko (eraikiko diren etxebizitza mota desberdinetan), lan egiteko (hiriko parke teknologiko berritzailean) eta gozatzeko (aisialdirako espazioetan eta egingo diren kultur eta kirol ekipamenduetan), lekuaren beraren ezaugarri fisikoez gain.

Proiektuak badu jada HAPBren behin betiko onarpena eta AI1 jarduera integratuaren HJPren behin betiko onarpena. UE1 Egikaritze Unitatearen Kontzertazio Hitzarmena behin betiko onartu zen 2013ko urrian.

2015eko ekainean iragarri zuten Eremu Mistoko AI 1eko SI-3, SI-4 eta DB-1 partzelak besterentzeko lehiaketa, eta irailean esleitu zitzaizkion Jaureguizar enpresari; eta 2015eko irailean ofizialki inauguratu eta oinezkoentzat zabaldu zen Frank Ghery zubia.

Udaleko Gobernu Batzordeak AI 1eko UE1ren Birpartzelazio Proiektua behin betiko onartu zuen 2015eko abenduaren 16an, eta 2016ko urtarrilaren 8an argitaratu zen BAO; 2016ko uztailearen 28an egin zen haren inskripzioa.

2016ko uztailean eman zitzaion hasierako onarpena UE1eko urbanizazio proiektuari, eta 2017ko uztailean eman zitzaion behin betiko onarpena. 2018ko maiatzean, Zorrotzaurreko A Fasearen urbanizazio obrak Viuda de Sainz, Lugoien eta Jaureguizarrek osatutako ABEEri esleitu zitzaizkion, eta urbanizazio horretako obren zuzendaritza, berriz, Saitec S.A. eta González Cavia y Cabrera Arquitectura, Urbanismo y Paisaje, S.L.k osatutako ABEEri.

2017ko uztailean berriro jarri zuen lehiaketan Zorrotzaurre eta San Inazio auzoak elkartuko dituen zubiaren eraikuntza; lehenengo lizitazioa (2016ko abendua) ezeztatu egin baitzen. Bigarren lehiaketa honetan 11 eskaintza aurkeztu zituzten (denak ABEEak). 2018ko otsailean, zubia eraikitzeko obrak egiteko lehiaketa Ferrovial-Agroman S.A eta VICONSA S.A enpresek osatutako ABEEari esleitu zion, 8.337.611,20 euroren truke. Lanak amaitzeko 17 hileko epea dago. 2018ko maiatzean hasi zituzten San Inazio Zubiko lanak.

2017an San Inazio eta Deusto Bekoa barrutietako proiektuak garatzen jarraitu genuen. 2017/01/25ean lortu zen Deusto Bekoa barrutiko B-058 Zorrotzaurre 104 BOE sustapenaren behin-behineko kalifikazioa, eta 2017/02/17an, San Inazio barrutiko B-058 Zorrotzaurre 104 PTE sustapenaren behin-behineko kalifikazioa.

2018ko maiatzean, Deusto Bekoa barrutiko B-094 Zorrotzaurre 104 BOE sustapenaren kalifikazio-espedita ezeztatu zen, sustapen berean, gutxienez 120 etxebizitzako proiektu batekin lan egiten hasteko. 2018ko uztailean, Zorrotzaurreko Eremu Mistoaren AI-1eko UE1ean dagoen lurzoru libreko SI-5 Partzela enkantean jarri zuen VISESAk. Urte bereko azaroan, bigarren lizitaziorako deialdia egin zen San Inazio, Zorrotzaurreko SI-5 partzela besterentzeko, uztaileko lehiaketa hutsik geratu baitzen.

Etxebizitzen tipologia eta proiektuaren partzelak (2018ko abenduaren 31n) honako taula hauetan jaso dira:

ETXEBIZITZAK GUZTIRA	TIPOLOGIA		
	BOE	PTE	EL
1.240	214	388	638

ETXEBIZITZAK GUZTIRA	PARTZELAK	
1.240	SI-2	104 VPT
	DB-2	120 VPO
	RD-3	117 VPT
	RD-6	59 VPO
	SI-5	153 VL
	DB-3	230 VL
	RZ-2	117 VL
	RZ-3	130VPT
	RZ-15	67 VL
	UE2+A12	35 VPO
		37 VPT
71 VL		

BOE: Babes ofizialeko etxebizitza – **PTE:** Prezio Tasatuko Etxebizitza – **EL:** Etxebizitza librea

6.3. VEGA GALINDO

“Vega Galindo” Egoitzarako Hiri Lurzoruko eremua Sestaoko Plan Orokorrean hiri-lurzoru gisa sailkaturiko lurzoruaren barruko eremu bat da, hirigunearen mugakide.

Udalerriaren alde hori oso narriatuta zegoen sozioekonomiaren ikuspuntutik, bai eta hiriko zerbitzu oinarritzkoenen ikuspuntutik ere. Eremu horri “Hirigunearen Zabalgu-nea. Vega Galindo” deitzen zaio, eta dituen ezaugarri urbanistikoak 2003an onartu zen “Iparreko Industria Eremuan Sestaoko HAPOren barruko aldaketan” ezarri ziren.

Indarrean dagoen planeamenduak Simondrogas izeneko eremua eta Rivas kaleko eraikinak, hau da, narriatuen dauden egoitza-guneen birmoldaketa eta birgaitzea berregituratu eta ahalbidetu nahi du, eta bide batez, Sustapen Publikoko Etxebizitzak egiteko lurzorua prestatzea. Guztira 1.351 etxebizitza egitea aurreikusi da, bi helbururekin; alde batetik, Sestaoko herritarren gaitasun ekonomikora egokituriko etxebizitza merkeak sortzea, eta, bestetik, birgaituko diren eremuetan bizi direnak lekualdatzeko etxebizitzak eraikitzea ahalbidetzea.

Aipatutako egoitza-gunearen antolamendurako jaso den proposamenaren funtsa da, batik bat, multzo osoaren ardatz nagusi izateko Sestaoko Kale Nagusia luzatzea, hiri-izaerako bidea sortuta, bi aldeetan eraikinek mugatua eta bizileku berria hirigunea-

rekin lotuko duena, baina bidean multzoaren nozioa galdu gabe.

Galindo ibaiarekiko paraleloan oinezkoentzako pasealeku bat dago, erriberaren alde biak lotzen dituena eta, aldi berean, aisialdirako gune ere badena. Eremua bi Egikaritze Unitatetan banatuta dago: UE1 eta UE2.

Jarduera Urbanizatzaileko Programa eta UE1 onartuta daude, eta, guztira, 328 etxebizitza eraikitzea aurreikusi da. Urbanizazio proiektua eta birpartzelazio proiektua behin betiko onartuta daude, eta deskontaminazio lanak ere eginda daude.

2014an amaitu zen UE1en urbanizazio lanen lehenengo fasea, eta 58 ES, 52 BOE eta 53 errentako BOE eraikitzeko obrak esleitu zitzaizkion Valeriano Urrutikoetxea, SAUri. 2015eko urtarrilean gauzatu zen obrei ekiteko akta, eta bezeroei 2019ko lehenengo sei hilabetekoan ematea aurreikusita dago.

2016ko ekainaren 16an San Frantzisko landa egokitzeko obrak gauzatzeko lizitazioa egin zen, eta Bycam enpresari esleitu zitzaion 2016ko abuztuan. 2017an oraindik San Frantzisko landa egokitzeko obrekin eta bestelako obra osagarriekin jarraitzen dute: berdinketa lanak, irisgarritasuna eta zoladura-obrak. 2018ko azaroan amaitu zituzten San Frantzisko landa egokitzeko obrak eta bestelako obra osagarriak.

2018an ekin zaio UE1eko II. fasearen proiektuaren erredakzioari eta UE1eko II. fasearen egikaritzari 2019ko lehenengo sei hilabetekoan ekiteko dokumentu teknikoen berrikuspena egin da.

Etxebizitzen tipologia eta proiektuaren garapen-faseak (2018ko abenduaren 31n) honako taula hauetan jaso dira:

ETXEBIZITZAK GUZTIRA	TIPOLOGIA			
	BOE	ES	PTE	EL
1.351	405	136	405	405

ETXEBIZITZAK GUZTIRA	FASEA		
	UE.1 Fase I	UE.1 Fase II	UE.2
1.351	52 BOEa 53 BOE 58 ES	105 BOE 60 PTE	195 BOE 78 ES 345 PTE 405 EL

BOE: Babes ofizialeko etxebizitza –**ES:** Etxebizitza soziala – **PTE:** Prezio Tasatuko Etxebizitza – **EL:** Etxebizitza librea

6.4. SmartEnCity. KOROATZE AUZOA BIRGAITZEA

SmartEnCity (2016-2021) proiektua “Hiri eta Erkidego Adimentsuak” izeneko Europako programaren barruan dago. Proiektu horretan “gida hiri” izango da Gasteiz, eta eraginkortasun energetikoari, garraioari eta IKTei buruzko hainbat soluzio aplikatuko dira modu integratuan, herritarren bizi-kalitatea hobetzeko.

Vitoria-Gasteizen, VISESA da jarduera horren arduraduna, eta Koroatze auzoko 5 etxe multzoko (1.313 etxebizitza) eremuan aplikatuko da. Gutxi gora-behera 750 etxebizitza birgaituko dira eta biomasan oinarrituriko bero-sarea hedatuko da.

Proiektuaren iraupena bost urte eta erdikoa izango da, eta 2016ko otsailaren 1ean hasi zen Aldabe Gizarte Etxean egin zen egintza ofizial baten bidez; horren ondoren, ekimenari hasiera emateko bilera bat egin zen Vitoria-Gasteizko Biltzar Etxean, eta Europako 6 herrialdetako 35 bazkide bildu ziren bertan.

Era berean, hainbat ekintza publiko egin dira proiektua auzotarrei zabaltzeko eta aurkezteko, eta Pintoreria kaleko bulegoaren osagarri, informazio-gune bat zabaldu da auzoaren erdigunean auzotarrek informazioa eskatu eta kontsultak egiteko, eta herritarrak inplikatzeko estrategiaren barruan, auzoarekiko harreman gune garrantzitsu izateko.

2017an zehar, informazio eta sentsibilizazio lan handia egin zen Koroatze proiektuaren inguruan, eta horrek lan handia eragin die hura bultzatzen duten administrazioei:

- 67 bilera egin dira jabeen erkidegoekin informazioa zabaldu eta erabakiak hartu ahal izateko.
- Kutxa kalean informazio-gunea jarri zenetik, 2017ko uztailaren 31n, 401 kontsulta jaso dira.
- “Atez ateko” ekintzan 879 etxebizitzarekin harremanetan jarri gara, hau da, 976 posibleetatik % 89,7rekin.

2017an zehar, proiektuari 156 etxebizitza atxikitzea lortu zen. Urtearen amaieran, eta auzokoen interesa ikusita, hasieran definiturik zegoen birgaitze proiektuaren jarduera eremua ondoko kaleetara zabaldu zen, eta beste 36 auzo-erkidegotan multzokatutako 568 etxebizitza atxiki ziren. Era berean, erkidegoak proiektuari atxikitzeko epea 2018ko maiatzaren 31ra arte luzatu zen.

2017ko azkeneko hilabeteetan obra lizentzia eskatu zen atxiki ziren lehenengo erkidegoetan birgaitze lanekin hasteko. (informazio gehiago: www.vitoria-gasteiz.org/coronacion ; www.smartencity.eu)

2018an, oso garrantzitsua izan da proiektuaren inguruko sentsibilizazio lana ere, eta 2018ko abenduaren 31n itxi zen etxebizitzaren jabeen erkidego gehiago atxikitze epea. Hortaz, guztira, 32 jabeen erkidego atxiki zaizkio proiektuari; 742 etxebizitza baliokide, hain zuzen.

2018ko lehenengo sei hilabeteetan bigarren aldiz lizitatu dira Early Adopters lehenengo erkidegoetako obrak (birgaitzearen monitorizazio lanak). Birgaituko diren lehenengo eraikinen obra lizentzia lortu da (Eulogio Serda 4 eta 8). Ekainaren 12 eta 13an, SATeren exekuzio egokiari buruzko formazio saioak egin dira Eusko Jaurlaritzako Eraikuntzako Kalitate Laborategiaren instalazioetan, enpresek birgaitze lanak berme osoarekin egite-rik izan dezaten laguntzeko.

2018ko uztailean hasi ziren auzoko lehenengo birgaitze lanak Early Adopters erkidegoetan.

2018ko abenduan informazio saio bat egin zen VISESAn birgaitze lanen lizitazioaren parte-hartzaile potentzialekin, lizitazioaren ezaugarri nagusiak zehatz-mehatz eta lizitazio elektronikoa nola hautatu azaltzeko. Hile horretan bertan, bigarren faseko bederatzia atarteetako obrak lizitatu ziren (98 etxebizitza).

Jarraian, 2018an VISESAk izan duen sustapen alorreko jardueraren zehaztasunak azalduko ditugu.

7.1. LURZORUAK

VISESAren jarduera edo zereginetako bat lurzoruei buruzko azterketak egitea da, bai eta lurzoru horiek erostea, kudeatzea eta urbanizatzea ere. 2018an, 134 etxebizitza sustatzeko lurzoria atxiki da, eta horrekin 2018-2020 aldirako Etxebizitzen Gida Planean VISESArentzat ezarritako helburuaren % 90 betetzen da, gutxi gora-behera.

2018rako VISESARENTZAT AURREIKUSITAKO LURZORU ATXIKIA	TIPOLOGIA	Etxebizitza kopurua
Hondarribi Presa II	ES	34
Hondarribi Presa I	BOEa	42
ERRENTARAKO LURZORUA GUZTIRA		76
G-071 Azkoitia kale Nagusia	BOE	16
Hondarribi Presa I	BOE	42
SALMENTARAKO LURZORUA GUZTIRA		58
LURZORUA GUZTIRA 2018		134

BOE: Babes ofizialeko etxebizitza - BOEa: Alogereko Babes Ofizialeko Etxebizitza-ES: Etxebizitza soziala

7.2 SUSTAPEN JARDUERA 2018an

VISESAk, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren sozietate den aldetik, harekin batera jarduten du horretarako baliabide propiorik ez duten pertsonen etxebizitza duin eta egokia ahalbidetzeko legeak bermatzen duen eskubidea betetzeko; eta helburu hori, gaur egun, pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko, saltzeko nahiz alokatzeko etxebizitza babestuaren sustapenarekin gauzatzen da; hori guztia 2018-2020 aldirako Etxebizitzen Gida Planean jasotzen diren helburuekin bat.

2018. PROIEKTUA LIZITATUTA DUTEN SUSTAPENAK (HASIAK):	421 ETXEBIZITZA
G-042. 51 BOEa, Arrasate (Zerrajera)	51
B-082. 85 ES, Barakaldo	85
G-042. 63 BOE, Arrasate (Zerrajera)	63
B-115. 118 PTE, Zorrotzaurre (RD-3)	118
B-058. 104 PTE, Zorrotzaurre (SI2)	104

2018. BEHIN-BEHINEAN KALIFIKATUTAKO SUSTAPENAK:	479 ETXEBIZITZA
B-124. 64 ES, Santurtzi (Rompeolas)	64
A-045. 63 ES, Salburua RCP07 (Vitoria-Gasteiz)	63
G-042. 51 BOEa, Arrasate (Zerrajera)	51
B-082. 85 ES, Barakaldo	85
B-087. 32 BOEa, Santurtzi (Rompeolas)	32
B-108. 15 BOE, Gordexola	15
B-080. 54 BOE Getxo (Venancios)	54
G-042. 63 BOE, Arrasate (Zerrajera)	63
B-045, 52 BOEa, Sestao (Vega Galindo)	52

2018. OBRA LIZITATUTA DUTEN SUSTAPENAK:	72 ETXEBIZITZA
B-086. 72 BOE, Barakaldo	72

2018. ADMINISTRAZIO KONTSEILUAN ADJUDIKATUTAKO OBRAK	217 ETXEBIZITZA
G-066. 14 ES, Azkoitia (Floreaga)	14
G-066. 16 BOE, Azkoitia (Floreaga)	16
G-070. 20 BOEa, Zarautz	20
G-070. 30 PTE, Zarautz	30
B-097. 65 BOE, Basauri (Sarratu)	65
B-086. 72 BOE, Barakaldo	72

2018. OBRA HASIERA DUTEN SUSTAPENAK:	413 ETXEBIZITZA
G-066. 14 ES, Azkoitia (Floreaga)	14
G-066. 16 BOE, Azkoitia (Floreaga)	16
G-070. 20 BOEa, Zarautz	20
G-070. 30 PTE, Zarautz	30
B-097. 65 BOE, Basauri (Sarratu)	65
B-046. 190 BOE, Bolueta (Bilbo)	190
B-090. 78 BOE Basurto krug (Bilbo)	78

2018. JASOTAKO SUSTAPENAK:	485 ETXEBIZITZA
G-061. 33 BOEa, Hondarribia	33
G-063. 70 BOEa, Morlans (Donostia)	70

B-043. 63 ES, Bolueta (Bilbo)	63
B-067. 101 ES, Leioa (Leioandi)	101
G-051.1. 32 ES, Irun (Oiñaurre)	32
G-051.1. 32 BOEa, Irun (Oiñaurre)	32
G-061. 32 BOE, Hondarribia	32
B-043. 108 BOE, Bolueta (Bilbo)	108
B-091. 14 EL, Basurto krug (Bilbo)	14

2018. ZOZKATUTAKO SUSTAPENAK:	262 ETXEBIZITZA
B-086. 72 BOE, Barakaldo	72
B-046. 190 BOE, Bolueta (Bilbo)	190

2018. ESKRITURAZIO HASIERAN DAUDEN SUSTAPENAK:	314 ETXEBIZITZA
G-061. 33 BOEa, Hondarribia	33
B-043. 63 ES, Bolueta (Bilbo)	63
G-051.1. 32 ES, Irun (Oiñaurre)	32
G-051.1. 32 BOEa, Irun (Oiñaurre)	32
G-061. 32 BOE, Hondarribia	32
B-043. 108 BOE, Bolueta (Bilbo)	108
B-091. 14 EL, Basurto krug (Bilbo)	14

2018an ABIAN DAUDEN SUSTAPENAK:	1.847 ETXEBIZITZA
G-063. 70 BOEa, Morlans (Donostia)	70
B-045, 58 ES, Sestao (Vega Galindo)	58
B-045, 53 BOE, Sestao (Vega Galindo)	53
B-045, 52 BOEa, Sestao (Vega Galindo)	52
B-070. 65 BOE, Basauri (Sarratu)	65
B-087. 32 BOEa, Santurtzi	32
B-095. 84 ES, Ortuella	84
B-090. 78 BOE Basurto krug (Bilbo)	78
B-046. 190 BOE, Bolueta (Bilbo)	190
B-097. 65 BOE, Basauri (Sarratu)	65
G-066. 14 ES, Azkoitia (Floreaga)	14
G-066. 16 BOE, Azkoitia (Floreaga)	16
G-070. 20 BOEa, Zarautz	20
G-070. 30 PTE, Zarautz	30
B-086. 72 BOE, Barakaldo	72
B-124. 64 ES, Santurtzi (Rompeolas)	64

B-058. 104 PTE, Zorrotzaurre (SI2)	104
B-125. 91 ES, Getxo (Iturribarri)	91
B-080. 54 BOE Getxo (Venancios)	54
B-108. 15 BOE, Gordexola	15
G-066. 16 BOE, Azkoitia (Floreaga)	16
A-045. 63 ES, Salburua RCP07 (Vitoria-Gasteiz)	63
G-042. 63 BOE, Arrasate (Zerrajera)	63
G-042. 51 BOEa, Arrasate (Zerrajera)	51
B-126. 58 BOEa, Getxo (Iturribarri)	58
G-042. 70 BOEa, Arrasate Fasell	70
B-115. 117 PTE, Zorrotzaurre (RD-3)	117
A-044. 63 ES, Salburua Fasell RCP07 (Vitoria-Gasteiz)	63
A-045. 63 ES, Salburua Fasell RCP07 (Vitoria-Gasteiz)	63
B-089. 32 BOE, Portugalete	32
B-109. 24 BOE, Mundaka	24

VPO: Vivienda de Protección Oficial – **VPOa:** Vivienda de Protección Oficial en alquiler – **VS:** Vivienda Social –
VPT: Vivienda de Precio Tasado – **VL:** Vivienda Libre

2018an HASI ETA AMAITUTAKO ETXEBIZITZAK

EAEn administrazioaren kalifikazioa duten babes publikoko hasitako etxebizitzak kopurua 1.373koa izan da 2018an; eta Erkidegoan hasitako etxebizitza guztien % 34,9 dira VISESAk egindakoak. VISESAk hasitako babes publikoko etxebizitzak, 2018an, babes ofizialeko etxebizitzak (BOE) eta etxebizitza sozialak (ES) izan dira.

EAEn hasitako etxebizitzak			VISESAk hasitako etxebizitzak	
BOE	ES	AE	BOE	ES
1.089	212	72	267	212


Iturria: Etxebizitzaren behatokia

EAEn administrazioaren kalifikazioa duten babes publikoko amaitutako etxebizitzak kopurua 799koa izan da 2018an; eta Erkidegoan hasitako etxebizitza guztien % 46,2 dira VISESAk egindakoak. VISESAk amaitutako babes publikoko etxebizitzak, 2018an, babes ofizialeko etxebizitzak (BOE) eta etxebizitza sozialak (ES) izan dira.

EAEn amaitutako etxebizitzak			VISESAk amaitutako etxebizitzak	
BOE	ES	AE	BOE	ES
623	167	9	205	164

Iturria: Etxebizitzaren behatokia

EAEn hasi eta amaitutako etxebizitza guztien artetik VISESAk duen etxebizitza hasi eta amaituen kuota (Eusko Jaurlaritzaren Administrazio kalifikazioa dutenak)



7.3. ETXEBIZITZA BABESTUAREN ETA ELEMENTU LIBREEN MERKATURATZEA 2018an

Jarraian, bezero partikular eta instituzionalarentzat VISESAk salmentarako eta alokatzeko sustatzen dituen etxebizitza babestuen merkaturatzea azalduko dugu; bai, halaber, EAeko hiru Lurralde Historikoetan garatutako sustapenetan erabilgarri dauden elementu libreena (merkataritzako lokalak, garajeak eta trastelekuak) ere.

Bezero partikularrei dagokienez, salmentarako eta erosteko aukera duten alokatzeko etxebizitza babestuak daude; eta azkeneko modalitate horri esker, 5 urtean alogereko etxebizitza babestu bat eduki eta epe hori igarotakoan erosteko aukera eskaintzen da.

Horrez gain, erakundeen, Udalen, Alokabideren edo Eusko Jaurlaritzaren bidez, ku-deaketa publikora begirako etxebizitza babestua eskaintzen du errentarako VISESAk.

PARTIKULARRENTZAKO ETXEBIZITZA BABESTUA

• ETXEBIZITZA BABESTUAK ESLEITZEKO ZOZKETAK, EROSKETA ARAUBIDEAN

2018. urtean, etxebizitza babestuen sustapenak -salerosketa modalitatean- esleitzeko

honako zozketa hauek egin dira:

Sustapena eta udalerrria	Esleitzeko etxebizitza kopurua		Zozketaren data
B-086. Barakaldo	72	BOE	2018ko maiatza
B-046. Bolueta (Bilbo)	190	BOE	2018ko ekaina
GUZTIRA	262		

BOE: Babes ofizialeko etxebizitza

• KONTRATUAK

I. SALEROSKETA KONTRATUAK

Honako hauek izan dira bezero partikularrekin, EAEn, 2018ko ekitaldian salerosketa kontratuen formalizazioa hasi duten etxebizitzaren sustapenak:

- B-046. Bolueta (Bilbo). 190 BOE. Kontratuak sinadura 2018ko urrian hasi zen.
Kontratuak guztira: 65
- B-086. Barakaldo. 72 BOE. Merkaturatzea eta kontratuen sinadura 2018ko abenduan hasi zen.
Kontratuak guztira: 1. Onartutako kontratuak: 35.
- B-097. Sarratu (Basauri). 65 BOE. Merkaturatzea 2018ko martxoan hasi zen.
Kontratuak guztira: 41.

II. EROSKETA AUKERA DUTEN ERRENTEN KONTRATUAK

2018ko ekitaldian, EAEn, bezero partikularrekin gauzatu diren erosketa aukera duten errenten kontratuak 12 izan dira; eta horietatik 3 Araban, 4 Bizkaian eta 5 Gipuzkoan izan dira.

Erosketa aukera duten errenten modalitatea 2013ko irailean hasi zen 2 sustapenekin, Iruña Oka eta Vitoria-Gasteizen. 2018aren amaieran, etxebizitza babestuko 296 kontratu zeuden indarrean bezero partikularrekin eta AROC (erosketa aukera duten errenten) modalitatean:

- 213 AROC kontratuak Vitoria-Gasteizen (BOE).
- 23 AROC kontratu Iruña Okan (BOE)
- AROC kontratu 1 Laudion (BOE).
- 4 AROC kontratu Ugao-Miraballesen (Udalaren Etxebizitza Tasatuak)
- 24 AROC kontratu Durangon (BOE)

- 9 AROC kontratu Barakaldon (BOE)
- 11 AROC kontratu Eskoriatzan (Udalaren Etxebizitza Tasatuak)
- 11 AROC kontratu Beasainen (Erkidegoaren Etxebizitza Tasatuak)

2018an iraungi dira 5 urteko iraupena zuten lehenengo erosketa aukera zuten errenten kontratuak. Bezero gehienek hautatu dute erosketa, eta beste erosketa aukera duen errenta kontratu bat (II) egiteko aukeraren aurrean, bezero batek hautatu du beste bost urtetarako lehenengo kontratua egitea.

III. KONTRATUAK GUZTIRA

Ondoko taulan 2018an sinatu diren kontratu guztien laburpena jaso da. Kontratuak VISESaren hainbat sustapeni dagozkie, salerosketa modalitatean edo erosketa aukera duten errenten modalitatean, EAEn:

	Merkaturatze fasean dauden sustapenen kopurua	KONTRATU KOPURUA		
		SE	AROC	GUZTIRA
ARABA	7	50	3	53
BIZKAIA	14	149	4	153
GIPUZKOA	4	10	5	15
GUZTIRA	25	209	12	221

• ETXEBIZITZA BABESTUEN ESLEIPEN ZUZENA (ZOZKETARIK GABE)

2018an, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailburuaren agindua eman zen honako sustapen honen Esleipen Zuzenari ekiteko:

Sustapena eta udalerría	Esleipen zuzena
B-097. Sarratu (Basauri) NI.2	2018ko urria

Sustapen hori aurreko beste 32 sustapeni gehitzen zaio; izan ere, esleipen zuzeneko aginduak 2013ko apirilean hasi ziren, gaur egunera arte.

Ondoko taulan 2018an esleipen zuzenaren bidez sinatu diren kontratuen laburpena jaso da. Kontratuak VISESaren hainbat sustapeni dagozkie, salerosketa modalitatean edo erosketa aukera duten errenten modalitatean, EAEn:

	Esleipen zuzena /SALEROSKETA	Esleipen zuzena / AROC
ARABA	50	5
BIZKAIA	40	5
GIPUZKOA	17	6
	107	16
GUZTIRA	123	

AROC: Errentan, erosteko aukerarekin

• ESKRITURAK

I. SALEROSKETA KONTRATUEN ONDORIOZKO ESKRITURAK

Bezero partikularrekin, EAEn, 2018ko ekitaldian salerosketa kontratuen ondoriozko eskritura hasi duten etxebizitzaren sustapenak honako hauek izan dira:

- B-043. Bolueta (Bilbo). 108 BOE. **PassivHaus etxebizitzak**. Eskrituren sinadura 2018ko azaroan hasi zen. **Eskriturak guztira: 103.**
- G-061. Hondarribia. 32 BOE. **Zurezko egitura duten etxebizitzak**. Eskrituren sinadura 2018ko azaroan hasi zen. **Eskriturak guztira: 30**
- B-091. 14 etxebizitza atxiki Krug-Basurton (Bilbo). Eusko Jaurlaritzaren, Bilboko Udalaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren artean 2008an sinatutako hitzarmenaren arabera, ordezkoko bizitokia izateko eskubidea zutenei **12 etxebizitza** atxiki eskrituratu eta eman zitzaizkien.

II. AROCEn EROSTEKO AUKERA HAUTATU ZUTENEN ESKRITURAK

2018ko ekitaldian erosteko aukera gauzatu duten etxebizitzaren sustapenari dagokionez, erosteko aukerako errenta zuten partikularren modalitatean, EAEn, guztira 52 eskritura formalizatu dira, eta horietatik 50 BOE Vitoria-Gasteizen egin dira, 1 BOE Ugao-Miraballesen eta 1 BOE Durangon.

III. ESKRITURAK GUZTIRA

Ondoko taulan 2018an sinatu edo gauzatu diren eskritura guztien laburpena jaso da. Eskriturak VISESAren hainbat sustapeni dagozkie, salerosketa modalitatean edo erosteko aukera duten errenten modalitatean, EAEn:

	Eskrituratze fasean dauden sustapen kopurua	ESKRITURA KOPURUA		
		SE	EKITALDIA AROC	GUZTIRA
ARABA	7	-	50	50
BIZKAIA	10	150	2	152
GIPUZKOA	3	39	-	39
GUZTIRA	20	189	52	241

SE: Salerosketa - AROC: Errentan, erosteko aukerarekin

ERRENTARAKO ETXEBIZITZA BABESTUA

• KONTRATUAK

Honako hauek 2018ko ekitaldian, errentako etxebizitzaren sustapenei dagokienez, Alokabide Sozietate publikoarekin eta/edo EAEko Administrazio Publikoarekin (Eusko Jaurlaritza) formalizatu diren kontratuak dira:

	ALOKABIDE		EUSKO JAURLARITZA	
	Sustapen kopurua	ES -BOEa	Sustapen kopurua	ES -BOEa
ARABA	1	123		
BIZKAIA	2	102		
GIPUZKOA	1	70	1	22
GUZTIRA	4	295	2	22

ES: Etxebizitza soziala - BOEa: Errentarako etxebizitza babestua

• ESKRITURAK

Honako hauek 2018ko ekitaldian, errentako etxebizitzaren sustapenei dagokienez, Alokabide Sozietate publikoarekin, EAEko Administrazio Publikoarekin (Eusko Jaurlaritza) eta udalekin formalizatu diren eskriturak dira:

	ALOKABIDE		EUSKO JAURLARITZA		BILBOKO UDALA - BILBOKO UDAL ETXEBIZITZAK	
	Sustapen kopurua	ES -BOEa	Sustapen kopurua	ES -BOEa	Sustapen kopurua	ES -BOEa
ARABA	1	123				
BIZKAIA	2	102			1	50
GIPUZKOA	1	70	1	22		

GUZTIRA	4	295	2	22	1	50
----------------	----------	------------	----------	-----------	----------	-----------

ES: Etxebizitza soziala – BOEa: Errentarako etxebizitza babestua

ETXEBIZITZA BABESTUA GUZTIRA (PARTIKULARRAK – ERRENTAKOAK)

Laburbilduz, honako hauek dira VISESAk bezero partikularrentzako edo instituzioentzako 2018an sustatu dituen salmentarako etxebizitza babestuak (salerosketa eta AROC) eta errenta sozialeko etxebizitzaren merkaturatzeari buruzko datuak:

	2018	
	Kontratuak	Eskriturak
BOE-AROC	221	241
ES -BOEa	317	303
Guztira	538	544

Laburpen hori EAEko hiru lurralde historikoetan banakatuta, honela geratzen da:

	2018ko kontratuak			2018ko eskriturak		
	BOE-AROC	ES -BOEa	Guztira	BOE	ES -BOEa	Guztira
ARABA	53	123	176	50	170	220
BIZKAIA	153	102	255	152	51	203
GIPUZKOA	15	92	107	39	82	121
Total	221	317	538	241	303	544

BOE: Babes ofizialeko etxebizitza –AROC: Errentan, erosteko aukerarekin – ES: Etxebizitza soziala - BOEa: Errentarako etxebizitza babestua

ELEMENTU LIBREAK (Lokal, Garaje eta Trasteleku libreak).

• KONTRATUAK

Jarraian, erosketa aukera duen errenta eta errenta modalitateetan kontratuen formalizazioa hasi duten elementu libreen (merkataritzarako lokalak, garajeak eta trastelekuak) merkaturatzeari buruzko 2018ko ekitaldiko datuak jaso dira:

I. MERKATARITZARAKO LOKALAK

Honako udalerrri hauetan daude erabilgarri eta eskaini dira VISESAren jabetzako LOKALAK erosteko aukera duen errentan (AROC) eta errenta modalitateetan:

ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
Vitoria-Gasteiz Llodio	Bilbao Basauri Ugao-Miraballes Derio Gernika	Mutriku Pasaia

Erosketa aukera duen errentak neurri berritzaile batzuk ditu merkataritzako jarduera bat abian jartzea errazteko eta laguntzeko; hala nola:

- Lanpostuak sortzeagatiko hobariak (errenta deskontuak).
- Lokala egokitzeko 6 eta 9 hilabete arteko errenta gabealdia.

II. GARAJEAK ETA TRASTELEKUAK

Honako udalerrri hauetan daude erabilgarri eta eskaini dira VISESaren jabetzako GARAJE eta TRASTELEKU libreak erosteko aukera duen errentan (AROC):

ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
Vitoria-Gasteiz Llodio Amurrio	Etxebarri Sopelana Basauri Ugao-Miraballes Derio Gernika Bermeo Durango	Donostia-San Sebastián Mutriku Hernani Elgoibar Errenteria Arrasate Eskoriatza Pasaia Beasain

III. KONTRATUAK GUZTIRA

Ondoko taulan elementu libreen gainean sinatutako kontratuen kopuru osoa banakatu da; indarrean daudenak eta 2018an sinatuak; denak EAEn eta erosketa aukera duen errenta modalitatean:

	AROC LOKALAK		AROC GARAJEAK		AROC TRASTELEKUA	
	Indarrean	2018an sinatuak	Indarrean	2018an sinatuak	Indarrean	2018an sinatuak
ARABA	12	5	46	11	-	-
BIZKAIA	28	6	116	23	3	-
GIPUZKOA	5	-	156	40	5	-
GUZTIRA	45	11	318	74	8	-

AROC: Errentan, erosteko aukerarekin

•ESKRITURAK

Ondoko taulan, VISESAren elementu libreen gainean 2018an eta EAEn formalizatutako eskrituren kopuru osoa laburbildu da:

ESCRITURAS	
LOCALES	15
GARAJES	156
TRASTEROS	1
TOTAL	172

Zehaztu behar da, 2018an, hasieran erosteko aukera duen errenta modalitatean sinatu ziren **6 merkataritzak lokalen erosketara aukera gauzatu direla**.

SALDU ONDOKO ZERBITZUA

VISESAk saldu ondoko arreta sistema bat dauka definituta; horrela, sustapenaren erai-kuntza prozesu osoan zehar eta sustapena eskrituratu edo bezeroari eman aurretik, etxebizitza guzti-guztiak eta elementu komunak behin eta berrik ikuskatzen dituzte arreta zerbitzuko kideek.

2018an 4 hitzarmen sinatu ditugu jabeen hainbat erkidegorekin, bertako intzidentzie-tarako. Honako sustapen hauetan, hain zuzen: A-013 Zabalgana (Vitoria-Gasteiz), A-018 Salburua (Vitoria-Gasteiz), B-013 Mina del Morro (Bilbo) eta B-059 Sondika.

Era berean, 2018an, B-070 Basauri (Sarratu), G-061 Hondarribia eta G-063 Morlans (Donostia) sustapenetako etxebizitza pilotua ikuskatu da. Obra amaiera baino lehen etxebizitza pilotu bat egiteak ahalbidetu egiten du Saldu Ondoko Zerbitzuak Enpresa Kontratistarekin eta Zuzendaritza Fakultatiboarekin bilera egitea etxebizitzaren alderdi orokorrak eta akabera modeloak aztertzeko, eta, horrela, bezeroek eduki ditzaketen intzidentziak ahalik eta gehien murrizteko.

B-043 Bolueta (Bilbao), B-067 Leioa, G-051 Irun, G-061 Hondarribia eta G-063 Morlans (Donostia) sustapenen aurre-jasotzearen ikuskapena ere egin dugu. Bezeroak etxebizitza bisitatu aurreko ikuskapen hau VISESAk obra jaso aurretik egiten da, enpresa kontratistak aipatutako erremateak egin dituenean.

7.4. BERRIKUNTZA, JASANGARRITASUNA ETA INDUSTRIALIZAZIOA

VISESAk egunero lan egiten du etxebizitza eraikitzeke prozesua hobetzeko, eta, gainera, ikuspegi berritzaile eta jasangarria erabiltzen du horretarako; ingurumena ez ezik, herritarrak ere zaintzeko, alderdi guztietan.

Gizartearen zerbitzura dagoen enpresa publikoa den aldetik, eraikingintzaren sektorean berrikuntza eta kalitatearen sustatzaile jardun behar du, eta hori bultzatzeko hainbat jarduera gauzatu behar ditu, bai produktuaren kudeaketari bai berrikuntzari dagokienez.

VISESAren Berrikuntza Politikaren xedea **sektorean kalitatea, jasangarritasuna eta berrikuntza** bultzatzea da, EAEko eraikingintzaren sektorean posizio egokia lortzeko. Azpimarratu behar da Europar Batasunako I+G+b Programa Markoetako hainbat lankidetza proiektutan hartu duela parte VISESAk.

VISESAk gauzatutako proiektuek erabat irauli dute herritarren bizimodua errazten eta hobetzen duten etxebizitzaren eraikuntza; EAEn, hirietako etxebizitzaren kudeaketarako eta eraikuntzarako hiru ardatz nagusitan oinarritzen diren teknika berriak erabiliz: industrializazioa, eraginkortasun energetikoa eta jasangarritasuna.

Datozen urteetan ere, aipatutako helburuak lortzeko hainbat eremutako proiektutan lanean jarraituko du VISESAk. Jarraian, VISESA lantzen ari den berrikuntza proiektuak azalduko ditugu:

ERAIKINEN ERAGINKORTASUN ENERGETIKOA ETA JASANGARRITASUNA

Neurri orokorrak:

- Sustapen guztietan zorrotz betetzen dira **“VISESAren diseinu eta eraikuntza irizpideak”**. Irizpide horietan autoexijentzia handiak jaso dira, eraginkortasun energetikoari eta jasangarritasunari dagokienez.

- Ziurtapen energetikoa kalitate berme gisa. VISESAk % 30eko gutxieneko aurrezki energetikoa ziurtatzen du eraikin guztietan, kalitate berme gisa. A, B eta C kalifikazio energetikoak lortzea ekarri du horrek.
- 2018an jasotako 415 etxebizitzek lortutako kalifikazioak honako hauek izan dira.
 - A Kalifikazioa: % 60,2 (5 promozio, 250 etxebizitza)**
 - B Kalifikazioa: % 39,8 (3 promozio, 165 etxebizitza)**
 - C Kalifikazioa: % 0**

IDAEn erreferentzia balioen aldean, honako batez besteko aurrezpena ortu da:
CO2 emisioen % 64,7ko aurrezpena
Oinarrizko energia ez berriztagarriaren % 62,9ko aurrezpena

- **Eguzki energia termikoko instalazioak.** Sustapenetan eguzki energia biltzeko kolektoreak (edo beste antzeko iturri berriztagarri bat) jartzen ditu VISESAk, etxekeko ur beroa lortzeko beharrezkoa den urteko batez besteko energiaren % 60 estaltzeko gutxienez (araudiak % 30 eskatzen du).
- Sustapen guztien jasagarritasuna diseinatzen eta ebaluatzen da, Eusko Jaurlaritzaren **Etxebizitzaren Eraikuntza Jasagarriaren Gida** erabiliz.
- A kalifikazioa edo goragokoa duten etxetresna elektrikoekin hornitzen dira etxebizitzak.
- Kontratazio publiko berdea: eraikuntza obren lizitazio agirien ambientalizazioa.
- Obra exekuzioan ingurumena bermatzeko plana egitea.

ZERBITZU ENERGETIKOAK EMATEA

VISESAk zerbitzu energetikoak ematen dizkie honako sustapen hauetako jabeen erkidegoei: A-027, 242 etxebizitza Salburuan (Vitoria-Gasteiz) eta A-030, 203 etxebizitza Laudion. VISESAren sustapen horiek A kalifikazio energetikoa dute, eta eraginkortasun handiko mikrokogenerazio sistema bat (aldi berean beroa eta elektrizitatea sortzeko) dute errendimendua hobetzeko.

VISESAk, horretarako, kogenerazio ekipamenduen titulartasuna mantentzen du, eta galdaren gelako operazioak eta haren mantentze-lanak egiten ditu, eta auzokoei ur beroa eta berogailua behar bezala hornitzea kudeatzen du. 445 etxebizitzari dagozkien kontratuak kudeatzen ari gara.

INDUSTRIALIZAZIOA ETA HIRI GARAPEN JASANGARRIAK

65 BOE Hondarribian. VISESAk gauzatu du zurezko eta eraginkortasun energetiko handiko (energia kontsumorik ia ez duen eraikina) sistema industrializatuetan oinarrituriko sustapen honen proiektua.

Promoziok interes handia piztu duenez, bezero eta sektoreko profesionalentzat bisitak eta atek irekitzeko egunak antolatu dira, zur industrializatuko egitura duen proiektu bitxi hau aurreikusita dagoen estaldura ipini aurretik ezagut zezaten, bai eraikinaren kanpoko aldean bai etxebizitzaren barruan.

361 etxebizitza babestu Boluetan (Bilbo). Sustapen hau diseinatzeko, PassivHaus eraginkortasun energetikoaren estandar zorrotza bete da. Hau da, eraginkortasun energetiko gorena, garapen jasangarria eta gastu ia nulua irizpideetan oinarritu gara etxebizitza babestu hauek eraikitzeko.

Sustapen honek eta Hondarribiako sustapenak interes handia piztu dute eraikuntzaren sektorean eta komunikabideetan, VISESAk sustatutako proiektuaren berezitasunak dirrela eta. Sektoreko teknikari eta profesional asko joan dira bisitan, bai eta komunikabideak eta formazioan dauden pertsonak ere, sustapenaren berezitasunak eta ezaugarriak bertatik bertara ezagutzera.

Proiektu hori VISESAren proiektu estrategikoetako bat da, eta horri buruzko informazio zabalagoa duzue txosten honen 6.1 puntuan.

EUROPAKO PROIEKTUAK I+G+b

SmartEnCity (2016-2021).

Europako I+G Horizon2010 Programa Markoko proiektua: SmartEnCity proiektuari atxikirik dauden Vitoria-Gasteizko Koroatze auzoko jabeen erkidegoetarako proposatutako birgaitze-jarduerei esker, birgaitutako eraikinetan A kalifikazio energetikoa lortuko da, inguratzailearen hobekuntzari eta Barrutiko etorkizuneko Bero Sararekiko konexioari esker.

Proiektu hori VISESAren proiektu estrategikoetako bat da, eta horri buruzko informazio zabalagoa duzue txosten honen 6.4 puntuan.

AZEB (2017-2019): “Towards Affordable Zero Energy Buildings” (Kontsumo nuluko eraikin merkeak).

AZEB proiektua H2020 programaren barruan dago, “Kontsumo ia nuluko eraikin berrien kostuen murrizpena (EE-13-2016)” eremu tematikoan. Bi urte eta erdiko gehiengo iraupena (2019ko urrira arte) duen proiektuan parte hartzen du VIVESAk Europako hainbat herrialdetako erakunde eta enpresarekin: Frantzia, Italia, Alemania, Holanda eta Bulgaria.

AZEB Europako proiektuaren helburu nagusia da nZEB (nearly Zero Energy Building – Kontsumo ia Nuluko Eraikinak) berrien diseinu eta eraikuntzaren kostua murrizteko metodologia orokor bat garatzea eta, aldi berean, bizi-zikloaren kostu globala murriztea. Horrez gain, proiektuetan lortutako ezagutza eta esperientzia merkaturako prest dauden soluzio gisa zabaldu nahi zaizkio EBko ahalik eta audientzia handienari. Eta azkenik, AZEB proiektuak, eraikuntzaren sektorea industria jasangarri eta etorkizuneko bihurtzen lagunduko duten eta horren eragile izango diren aitzindariak sortzen laguntzea ere lortu nahi da.

2017ko maiatzean ekin zitzaion proiektuari. Proiektuaren lantaldearekin bi bilera egin ziren, eta hainbat emangarri aurkeztu ziren. Barneratutako ikasgaiak eta etorkizunerako gomendioak aztertzeke tailerra egin zen azaroan VISESAn; horretarako, Salburuako (Victoria-Gasteiz) 171 Esko eraikinaren kasua hartu zen aztergai, eta proiektuaren gauzapenean inplikaturik egon ziren pertsona askok eta AZEB proiektuaren koordinatzaileak hartu zuten parte.

2018ko otsailean Santurtziko 96 etxebizitzako B-087 sustapena hautatu dute garatutako metodologia aplikatzeko aztergai. 2018an proiektuaren lantaldeak bi bilera egin ditu, hainbat emangarri aurkeztu dira eta proiektuaren lehenengo hemezortzi hilabeteetan (17/05/01etik 18/11/30era) gauzatutako jarduerari dagokion txostena eman da.

BIM SPEED (2018-2022)

BIM-SPEED proiektuaren helburua Europako eraikinen birgaitzeen eraginkortasuna hobetzea da, informazio integratua duen datu base bat emanez eraikinen birgaitze proiektuen bizi ziklo osorako: dagoen eraikinari eta haren berrikuntzei buruzko hasierako informazio bilketatik hasi eta birgaitzea amaitu ondoren eraikinaren azken errendimendua neurtzeraino. 48 hilabeteko iraupena du (2018ko irailetik 2022ko irailera), 22 bazkideko partzuergoak hartzen du parte eta koordinatzailea TECHNISCHE UNIVERSITÄT BERLIN (Alemania) da.

VISESAREN zeregina birgaitze kasu erreal bat eskaintzea da, BIM Speed proiektuak irauten duen bitartean garatuko den tresna bertan aplikatu ahal izateko.

2018ko irailean eman zitzaion hasiera ofiziala proiektuari, eta Kick Off Meeting antolatu dute Bruselan. Koroatze auzoko birgaitze proiektuen artetik VISESAREN BIM Speed-en barruan erabiliko dituen bi kasu hautatu dira abenduan.

8. EITen KUDEAKETAN LAGUNTZEA - EuskoRegite

Autonomia Erkidegoko eraikinen ikuskapen teknikoa arautzen duen dekretua aldatzen duen maiatzaren 20ko 80/2014 Dekretua onartuta, **EuskoRegite** plataforma jarri zen abian 2014ko ekainaren 2an.

EuskoRegite, EAEko Eraikinen Ikuskapen Teknikoa erregistratzeko Interneteko plataforma da. Eusko Jaurlaritzak ezarri duen plataforma horren xedea da eraikinen jabeei EIT egiteko betebeharra betetzen laguntzea eta udalei Eraikinen Ikuskapen Teknikoa (EIT) kudeatzen eta kontrolatzen laguntzea. A la plataforma se accede a través de la página web www.euskoregite.euskadi.eus

EuskoRegiteren webgunean alderdi pribatu bat dago, RECITE; udalentsako da, EAEko udalek eraikinen ikuskapen teknikoak jasotzeko, aztertzeko eta inskribatzeko. Era berean, RECITEn erregistraturik geratzen dira herritarrek nahiz EAEko udaletako EITen arduradunek egindako kontsulta guztiak, teknikoak izen zen izan ez.

VISESAn, EuskoRegite plataformarekin batera, laguntza eman diogu Eusko Jaurlaritzari elkargo profesionaleri eta udalei aurkezpenak eta formazio-saioak emateko. Ekintza horien xedea da Eraikinen Ikuskapen Teknikoari buruz dagoen araudiaren eta EuskoRegite, Eraikinen Ikuskapen Teknikoaren informazio eta kudeaketarako atari informatikoaren berri ematea.

2018an, iragankorki eta jarduera hori 2018an bertan Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailari behin betiko eskualdatu arte, VISESAk jarraitu du zeregin hori betetzen: 4.077 telefono kontsulta, 1.474 mezu elektroniko, 225 intzidentzia tekniko eta EITri buruzko 6 jardunaldi udalei, teknikariei eta herritarrei zuzenduak.

EAEko Eraikinen Ikuskapen Teknikoen erregistroa indarrean jarri zenetik 2018ko abenduaren 31ra arte, guztira, 12.208 telefono kontsulta eta 7.392 mezu elektroniko jaso eta erantzun dira. Era berean, eraikinei buruzko informazio-oharren 3.699 kontsulta egin dituzte herritarrek. Kontsulta horiek guztiak partikularrek, udalek, arkitektoek, aparejadoreek, eta abarrek egin dituzte.

Alor horri dagokionez, hainbat tresna ditu VISESAk erakundearen kudeaketa hobetzeko.

9.1. KUDEAKETA AURRERAPENAK

VISESAk kudeaketaren berrikuntzarekin eta jasagarritasunarekin duen konpromisoak aurrerapenak eragiten ditu; hala nola:

2016.

- Kanpoko ostalari batetik Eusko Jaurlaritzaren artxibategi nagusira lekualdatu ziren dokumentu funtsak, eta artxibategi horretara aplikazio informatiko batetik sartu ahal izango da.
- Eusko Jaurlaritzaren kontratu markoaren barruko komunikazio azpiegitura guztien berrikuntza, zerbitzuen kostua eta kalitatea nabarmen hobetuz.
- Apirilean, Eusko Jaurlaritzaren elektrizitate hornikuntzarako kontraturako atxikipena gauzatu genuen.
- Segurtasuneko Eskema Nazionalaren arabera, borondatezko diagnostikoa egin genuen eta iradokitako hobekuntza ekintza batzuk jarri genituen martxan; hala nola, segurtasuna handitzeko proxy bat instalatzea.
- Mezularitza elektronikorako segurtasun perimetraleko zerbitzua ezarri genuen.
- Eusko Jaurlaritzaren ordainketak egiteko pasabidea ezarri genuen ordainketa sistema berria ahalbidetzeko, on-line ordainketa.
- EuskoRegite datuak ustiatzeko aplikazioaren garapena.
- Presentziaren kontrola kudeatzeko aplikazioa ezarri eta abian jarri genuen.
- Erosteke Aukera duen Errenta modalitatea (AROC) hasi genuen, lokal eta garaje libreetarako.
- VISESAn BIM teknologia ezartzeko proiektu pilotuaren garapena.
- Laneko jazarpen sexual eta sexista prebenitzeko lehenengo protokoloa landu eta onartu genuen.
- VISESAk Interneten duen presentziaren lehenengo azterketa kuantitatiboa: sare sozialak, blogak, foro eta berri digitalak; sare sozialen inguruko estrategia lantzeko lehenengo urratsa.
- Alderdi psikosozialari dagozkion arriskuak ebaluatzeko lehenengo inkesta egin zen ISTAS 21 metodoa erabiliz.
- Barneko formazio ikastaroak egiteko tresna baten sorrera: Moodle.

2017.

- Egungo ingurumena kudeatzeko sistema ISO 14001 arauari jarraikiz egokitzea; eskakizun maila handiagoko EMAS arauari erantzuna emateko. Ingurumen politikaren berrikuspena egitea onartu zen.
- #PorElClima erkidegoari atxikitzea.
- 2017 Kontratu-Programaren harpidetza.
- “0 akats” izeneko zeharkako gogoeta prozesuaren hasiera. etxebizitzaren premiari, etxebizitzaren kalitatea hobetzeari eta eraikuntzako eta erabileraren ondoriozko patologiak saihesteari erantzuteko helburuak definituko dituzten hobe-kuntzak identifikatzeko eta ezartzeko.
- Euskalit Kudeaketa Aurreratuko Ereduaren arabeko autoebaluazioa egitea.
- Business Intelligence aplikazioa ezartzea adierazleen eta informazioaren kudeaketa eta sorrera automatikorako.
- VISESAren ERP 2016ko bertsiora migratzea, tresna egunean edukitzeko eta dokumentuak sortzeko funtzio berria txertatzeko.
- VISESAren alta ematea Eusko Jaurlaritzaren segurtasun sisteman, (XL-NETs) eskubide osoko erakunde gisa; eta horrek ireki egiten du VISESAren aplikazioak eta Eusko Jaurlaritzarenak integratzeko aukera.
- VISESAren dokumentazioaren kudeaketa digitalerako eredia diseinatzea eta Euskadiko administrazio publikoaren dokumentazioaren kudeaketarako sisteman txertatzea.
- Sailkapen taularen eguneratzea: VISESAren dokumentazio sailkapena birdiseinatzea Eusko Jaurlaritzaren jarraibideekin bat.
- Delituen prebentziorako kudeaketa sistemaren ezarpena.
- VISESAren Gobernu Korporatiborako Sistemaren lanketa, barne hartuta: Gobernu Korporatiborako Sistemaren Oinarri Orokorrak; Administrazio Kontseiluaren Erregelamendua; Kontseilariaren Estatutua eta Kontseiluaren Kode Etikoa.
- Administrazio Kontseiluak 2016ko ekitaldiari zegokion Kanpoko Adituaren urteko Txostena –kapitalen zuriaketa eta terrorismoaren finantzaketa prebenitzeko ezarritako barneko kontrol neurrien azterketari dagokiona– eta proposatutako ekintza plana onartu zituen.
- VISESAren hitzarmen kolektiboa EHAOn argitaratu zen (EAEko lehenengo hitzarmena)
- Bizikleta elektrikoekin egindako lehenengo ECO garraioa (mugikortasun jasangarria).
- Etxebizitza Zuzendaritzarekin eta Alokabiderekkin batera, BIM metodologia-ren egokitzapen progresiborako zeharkako proiektuari ekin genion erakunde osoarentzat.
- Zigor alorreko Compliance Proiektua jarri zen abian.

- Vitoria-Gasteizko gure instalazioetan B Ziurtapen Energetikoa lortu genuen.
- Agirietan Klausula Sozialak eta Berdintasun Klausulak txertatzeari buruzko txostena egiteko enkargua.
- 2018-2020 aldirako Etxebizitzen Gida Planaren lanketan parte hartu genuen.

2018.

- Etxebizitzaren Gida Plan berriari lotuta, 2018-2020 Plan Estrategiko berria landu, onartu eta komunikatu genuen.
- Prozesuen Mapa berria prozesu guztietara hedatu genuen.
- Dokumentuen segurtasun eta kudeaketarako politika berria onartu genuen.
- Business Intelligence aplikazioa hedatu genuen adierazleen eta informazioaren kudeaketa eta sortze automatikorako.
- Mezularitza elektronikoa EJIera migratu genuen.
- VISESAren dokumentazioaren kudeaketa digitalerako ereduari erantzuna emango dion tresna bat diseinatu eta Euskadiko administrazio publikoaren dokumentazioaren kudeaketarako 2017ko sisteman txertatu genuen.
- Tarteko artxibategia berrikuspena eta berrantolaketa eta dokumentazioa kudeatzeko prozedura batzuen sistematizazioa.
- "0 akats" izeneko zeharkako gogoeta prozesuan aurrera egiten jarraitu genuen. etxebizitzaren premiari, etxebizitzen kalitatea hobetzeari eta eraikuntzako eta erabileraren ondoriozko patologiak saihesteari erantzuteko helburuak definituko dituzten hobekuntzak identifikatzeko eta ezartzeko.
- Kudeaketa sistema (operatiboa, agiriak, kontratuak, barneko formazioa...) eta aplikazioak Kontratuei buruzko Lege berrira egokitu genituen.
- Datuak Babesteko Kudeaketa Sistema Europako erregelamendu berrira egokitu genuen.
- Inplikazioen azterketa eta BIM metodologia ezartzeko ikuspegia, Etxebizitza Saila eta Alokabiderekin elkarlanean.
- Eraikune aitzindari duen BIM Batzordeko lantaldeetan parte hartzea.
- Delituen prebentziorako kudeaketa sisteman aurrera egitea.
- Kapitalen zuriketa prebenitzeko kudeaketa sisteman hobekuntzak txertatzea.
- Indarrean lehenengo 5 urteak eman ondoren, BOEren AROC kontratuak berritzeko sistematika ezarri eta berorri ekitea.

9.2. GESTIÓN DOCUMENTAL

2018an VISESAren dokumentazioaren kudeaketarako eredua ezartzen lanean jarraitu

dugu; sistema horretan, dokumentu mota oro eta bizi-ziklo osoan sartuko dira, haien erabilgarritasuna, irisgarritasuna, osotasuna, trazagarritasuna, isilpekotasuna, kontserbazioa eta jasagarritasuna bermatuz, eta xede hauekin:

- Administrazio eraginkortasuna handitzea, bilatzen denbora ematea, neurri gabe biltegitratzea eta dokumentazioa bikoiztea saihesteko.
- Sarreraren kontrola eraginez eta dokumentazioaren trazagarritasuna kontrolatuz, dokumentuen segurtasuna kudeatzea.
- Jasagarritasuna bultzatzea, bai biltegitratze fisiko eta/edo digitalari dagokionez bai baliabideen erabilerari dagokionez; paperean dauden dokumentuak dokumentu elektronikoekin ordeztzea sustatuta.
- Dokumentuetan jasotzen diren datuen isilpekotasuna bermatzea.

Dokumentazioa Kudeatzeko eredu horretan, besteak beste, Eusko Jaurlaritzak fitxategiak antolatzeko zehaztutako araudian, EAEko sektore publikoko dokumentu elektronikoak kudeatzeko politikan eta datuak babesteko Europako Erregelamenduan jasotzen diren betekizunak jaso dira.

Egindako ekintzen artean, honako hauek azpimarra daitezke:

- Dokumentazioa kudeatzeko politika gauzatzea eta politika horretan aipatzen diren hainbat mailatako arauak garatzea.
- VISESAren dokumentazioaren sailkapen-taula etengabe berrikustea eta eguneratzea.
- Dokumentazioa kudeatzeko taldearen koordinazioa. Horren bitartez bideratzen dira VISESAren alorretako beharrianak eta jarraibideak.
- Tarteko artxibategiaren berrikuspina: espazioen berrantolaketa, dokumentazioaren sailkapena eta espazio horretako dokumentazioaren kudeaketarako prozedurak ezartzea barne.
- Arlo juridikoko bulegoko artxibategiaren egoera aztertzea eta VISESAren dokumentazio sistematikara egokitzeko lanei ekitea.
- Arloen artean, artxibategi maila desberdinen artean, VISESAtik Alokabidera eta Euskadiko Artxibategi Biltegitara egindako dokumentazio maileguen eta transferentzien kudeaketa.
- Bi dokumentazio serieren digitalizazioa eta tratamendua; gai juridikoak eta salmenta ondokoa. Dokumentazio serieen tratamendu eta kudeaketa proiektuen hasiera.
- Fitxategi informatikoak gordetzen diren VISESAren sare-unitatearen garbiketa, ordena eta zaintza proaktiboa.

- Dokumentuen sarrera eta irteera erregistratzeko sistema bat abian jartzeko tresna lantzea, ezartzea, kudeatzea eta diseinatzea, Eusko Jaurlaritzako dokumentazio kudeatzailearekin koordinatuta.

Finean, erakundearen dokumentazioa kudeatzeko sistematika ezartzeko eta hobetzeko lanean jarraitzen dugu; eta hori, dokumentazioaren segimenduan, kontrolean eta artxi-boan islatzen da; beraz, erakundera iristen den eta bertan sortzen den dokumentazio guztiaren berri edukitzea esan nahi du horrek, baliabideak optimizatuz eta kudeaketa modu jasangarrian hobetuz.

9.3 LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA


VISESAk bere sustapenetan diharduten pertsonen baldintzak eta segurtasuna hobetzeko lana eta ahalegina egiten jarraitzen du eta, horren ondorioz, laneko istripuak murrizten, EAEko Eraikuntzaren Sektorera intzidentzia indizeekin alderatuta.

2007. urteaz geroztik ez da inolako heriotza-istripurik gertatu, eta 2018an 10 istripu arin gertatu dira. Grafikoan ikus daitekeen bezala, 2018. urtean, ezbehar-tasa 1.000 langileko 36,17 istripukoa izan da. Aztertutako aldiaren portaera ziklikoa ikus daiteke, bost urtean behin antzeko joera duena; hala ere, aztertutako aldia zabaldu behar da behin betiko ondorioak ateratzeko.

Lankidetzaren Hitzarmenaren barruan, VISESAren Eraikuntza Lanetako Intzidentzia Indizeen emaitzak

Urtea	EAEko intzidentzia indizea (1.000 langileko)	VISESAko obretako intzidentzia indizea (1.000 langileko)	Intzidentzia indizeen erlazioa (%)
2006	141,00	55,01	39,01
2007	126,30	43,90	34,76
2008	126,70	42,00	33,15
2009	108,37	35,50	32,76
2010	107,97	27,03	25,03
2011	90,70	52,98	58,41
2012	76,53	41,76	54,57
2013	73,42	35,76	48,71
2014	76,21	36,91	48,43
2015	78,08	14,34	18,37
2016	80,78	52,64	65,17

2017	86,27	34,68	40,20
2018	85,10	36,17	42,50



9.4. KUDEAKETA AURRERATUARI BURUZKO EUROPAKO ASTEA

Kudeaketa Aurreratuari buruzko Europako Astea Europar Batasun osoan urtero gauzatzen den ekimena da, eta kudeaketaren sustapenerako eta hedapenerako topagune izatea du xede. Ekimen horren barruan hainbat ekitaldi egin dira: hitzaldiak, mahai-inguru edo world kafeak, etab., eta izaera praktikoa dutenez, jendeak modu aktiboan parte har dezake hainbat erakunderen kudeaketa jardunbiderik onenen berri ematen den bitartean.

Helburua da kudeaketa aurreratua, bikaintasuna, berrikuntza, gizarte konpromisoa, ja-sangarritasuna eta lehiakortasunaren inguruan, hainbat talde profesionalen arreta eta sentsibilizazioa piztea eragingo duten edukiak eta txostenak aurkeztea.

VISESAk 2004. urteaz geroztik hartzen du parte Kalitatearen Europako Astea, eta es-perientziak eta gogoetak partekatzen ditu beste erakunde batzuekin, ikaskuntza eta presentzia publikoa nabarmentzen diren inguru batean.

9.5. BILTZARRAK ETA ARGITALPENAK

Zerbitzu publiko eta gardena den aldetik, Sozietateari balioa eransten dioten ekitaldi edo argitalpenak antolatzeke eta horietan parte hartzeke erakusten duen ekimenean islatzen da VISESAren konpromisoa. Horren adibideak dira:

2016.

- **MANAGEABLE COOPERATION** Biltzarrean parte hartzea. EURAM 2016an parte hartzea, "The relationship between human capital and the investment in occupational health and safety: an empirical analysis" txostenarekin. Paris, 2016ko ekaina.
- **BILAKAERAN DAUDEN ERAKUNDE ETA PERTSONEI** buruzko Biltzarrean parte hartzea. ACEDE 2016an parte hartzea, "The relationship between human capital and the investment in occupational health and safety: an empirical analysis" txostenarekin. Vigo, 2016ko ekaina.
- **ERAIKUNTZAKO LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO II. BILTZARREAN** parte hartzea. OSALAN 2016. Eraikuntzako LAPko Jardunbide Egokiak. VISESAri saria. 2016ko urria.
- "Boluetara Eraikina: horrela eraiki da Bilbon munduko egoitzarako passivhaus altuena" artikulua argitalpena. Idealista. 2016ko urria.
- VISESAren jasagarritasunaren bigarren txostenaren lanketa eta argitalpena, GRI estandarren arabera, gure konpromiso sozialaren eta gardentasunaren adierazgarri.

2017.

- **ERAIKINEN BIRGAITZE ENERGETIKORAKO EKINTZA PLANEN SORRERA** web Mintegian parte hartzea, Vitoria-Gasteizen egindako eraginkortasun energetikoari eta hiri birgaitzeari buruzko esperientziak aurkezteko, SmartEnCity proiektuaren barruan eta Kopenhageko Zentroak Eraginkortasunari buruz antolatutako nazioarteko mintegiaren harira. 2017ko martxoa.
- **17. SEMSIG-AETESS** Jardunaldi Teknikoa. "Patologiaren eta Obra Geotekniko Konplexuen Kasuak" gaiaren inguruko esku-hartzeak. Madril, 2017ko otsaila.
- **UPV/EHUko Udako Ikastaroak**. UPV-EHUren udako ikastaroen egitarauaren barruan, Hondarribiko sustapena haren eraikuntza sistema, konparazioa eta ondorioak gaiaren inguruko jardunaldi monografikoaren antolakuntza. Donostia, 2017ko iraila.
- **BIM FERROVIAL AGROMAN** Jardunaldia. Ferrovial jardunaldi korporatiboan hi-

- zlari gisa parte hartzea: BIM jarduerak eta esperientziak. Madril, 2017ko azaroa.
- ETSII. GMET- Bilbao-UPVk antolatutako jardunaldian parte hartzea, kontsumo energetiko ia nuluko eraikinen inguruan, Bolueta eta Hondarribiko sustapenak azaltzeko. Bilbo, 2017ko azaroa.
 - ALKATEEN ARTEKO ITUNA izeneko Udalen arteko II. Topaketa. VISESAk "Vitoria-Gasteizko Koroatze auzoaren birgaikuntzaren kudeaketa" izeneko txostenarekin hartu zuen parte. Euskalduna Jauregia – Bilbo, 2017ko apirila.
 - KALITATEAREN ASTEA 2017. VISESAk antolatutako mintegia, "Hiria birgaitzeko, administrazioen arteko gaikuntza eta koordinazioa"ri buruz. Vitoria-Gasteiz, 2017ko azaroa.
 - ENERGIA IA NULUKO ERAIKINAK IV. Biltzarra. Madril, 2017ko abendua. VISESAk bi txosten aurkeztu zituen:
 - 1.- "Sustapen publikoko alturako 361 etxebizitzaren proiektua eta exekuzioaren esperientzia, Passivhaus estandarraren arabera – Energia ia Nulua: eraikuntza azterketa eta alternatibak" eta
 - 2.- "Eraginkortasun energetikoa eta energia berriztagarriaren aprobetxamendua irizpideen arabera diseinaturiko Salburuako (Vitoria-Gasteiz) 171 etxebizitza sozialen erabilera eta operazioaren ondorioak".
 - Sektoreko hainbat profesionalen egindako bisita eskaerak antolatzea, zabaltzea eta arreta egitea. Bisitak VISESAk BOLUETAn (Passivhaus eraginkortasun energetikoko estandarraren arabera diseinatua) eta HONDARRIBIAN (zurezko sistema industrializatu eta eraginkortasun handikoekin diseinatuak – energia kontsumo ia nuluko eraikina) dituen proiektuetako obretara egin ziren.
 - Honako artikuluen argitalpena:
 - 1.- "Sustatzailearen ardura eta aitzindaritza segurtasunari eta osasunari dagokienez". Arabako erakundearen 50 jardunbide egoki. Arabako Foru Aldundia eta San Prudentzio Fundazioa 2017.
 - 2.- "VISESA: sustatzailearen prebentzio alorreko aitzindaritza Eraikuntzaren sektorean". Formación de Seguridad Laboral aldizkariaren 155 zk., 2017ko urrikoa. Editorial Borrmart, S.A.

2018.

- "VITORIA-GASTEIZKO ERAIKIN BIRGAIUETARAKO BISITA" berriro antolatzea. Koroatze auzoko biztanleek birgaitze obren adibideak eta biomasako bero sare bat bisitatu dituzte hiriko beste kale batzuetan. Vitoria-Gasteiz, 2018ko martxoa eta apirila.
- "HOUSING THE BASQUE COUNTRY" erakusketa (Euskadiko Etxebizitza Publikoa /Vivienda Pública de Euskadi). Erakusketa horren inaugurazio ekitaldian eta mahai-inguruan parte hartu genuen; bertan, Euskadin aplikatu den etxebizitza

publikoko politika aztertu zen eta 1981-2018 aldiko proiektu bitxi eta adierazgarrien 30 sustapen hautatu jarri ziren ikusgai. Kontuan hartu dira, hautaketarako, haien balio arkitektoniko eta estetikoak, lurralderako egokitzapena, erai-kuntzaren eta teknikaren alorreko ekarpenak edo proiektuaren egileak. Bilbao, 2018ko maiatza.

- ASA 2018 REGENERANDO LA ENVOLVENTE TÉRMICA, Topaketen zikloa. VISESAk "Vitoria-Gasteizko Koroatze auzoaren birgaikuntza" izeneko txostenarekin hartu zuen parte. Madril, 2018ko maiatza.
- "BIM ETA PASSIVHAUS: ERAIKUNTZAKO ERRONKAK ETA ESTRATEGIAK". "BIM. Aukerak, erronkak eta eraldaketa" solasaldian hartu zuen parte VISESAk. Donostiako energia jasangarriari buruzko Europako Astea. 2018ko ekaina.
- "SMARTENCITY KOROATZE AUZOKO PROIEKTUA; BIRGAITZE ENERGETIKOKO SISTEMEN EXEKUZIO EGOKIA" Jardunaldiaren antolakuntza. Vitoria-Gasteiz, 2018ko ekaina.
- "ZUREZKO ERAIKUNTZAREN ORAINA ETA GEROA ETA HAREN ERAGINKORTASUN ENERGETIKOA" Jardunaldi Profesionala. VISESAk "Zura Eraikingintza Jasangarriko funtsezko elementua" txostenarekin hartu zuen parte UPV-EHU (Donostia), 2018ko iraila.
- "OPEN HOUSE" atea irekitzeko eguna. 108 BOE eta 63 Esko Passivhaus Bolueta sustapenerako bisitaren hasiera Bilboko eraikinik esanguratsuenetako batzuen atea irekitzeko egunaren barruan. 2018ko iraila.
- Sektoreko beste kide batzuk eta erakunde nazional eta nazioartekoentzat Bolueta eta Hondarribiko sustapenetara hainbat bisita antolatu ditugu, profesionalentzako interes tekniko handia baitute.
- Passivhaus etxebizitza baten erabilera eta mantentze-lan eraginkorra egiteko, bideo tutorial bat landu dugu bezeroei eta herritarrei helarazteko.
- VISESAren jasangarritasunaren hirugarren txostenaren lanketa eta argitalpena, GRI estandarren arabera, gure konpromiso sozialaren eta gardentasunaren adierazgarri.
- Zerbitzuen Kartaren bertsio baten argitalpena.

9.6 ZIURTAPENAK, AITORTZAK ETA SARIAK

VISESAren egitekoa, ikuspena eta balioak betetzeko konpromisoak emaitzak ematen ditu, eta jarraian azalduko ditugunak bezalako kanpoko aitortzak eragiten ditu:

2016.

- Laneko Arriskuen Prebentzioko saria, Borrmart aldizkariak. (Madril, 2016ko otsailaren 24a). Honako honetan VISESAri eman zioten Laneko Segurtasunaren Kudeaketaren Saria, Laneko Segurtasun eta Osasunaren Sarien IV. Lehiaketa Nazionalan. Estatuko sari horiek bi urtean behin deitzen ditu Borrmart Argitaletxearen FSL (FORMACIÓN DE SEGURIDAD LABORAL) aldizkariak, eta 2010. urtean sortu zituzten, “Laneko Segurtasunaren Sektorean, egindako ekarpenengatik eta frogatutako merituengatik bereziki nabarmendu diren pertsonen eta erakunde publiko eta pribatuen merituak goraiatzeko”.
- Asociación Española de Promotores Públicos de Vivienda y Suelo (AVS) izeneko elkarteak Obra Berriko Eraikinik Onenaren kategoriako Akzesit batekin saritu ditu VISESAk Gasteizko Salburua auzoan sustatutako 171 etxebizitza sozialak (2016ko martxoa. Sari banaketa, 2016ko apirilean).
- “Formación de Seguridad Laboral” Laneko Arriskuen Prebentzioan eta Laneko Segurtasun eta Osasunean espezializatuta dagoen aldizkari tekniko eta independenteak antolatzen dituen “LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNAREN IV. SARIAK” banatu ziren otsailaren 24an.
- Inguru oso konplexuan laneko arriskuen prebentzioaren kudeaketagatik enpresen aitortza jaso zuen VISESAk, ORP Nazioarteko Fundazioak emana (2016ko iraila).
- European Responsive Housing Awards (Etxebizitza arduratsuaren Europako Sariak 2016) izenekoetan sari berezia jaso genuen finalista izateagatik tokiko gizarte jasangarritasuna atalean Vitoria-Gasteizko 30 etxebizitzaren birgaikuntzagatik, eta pertsonen kudeaketa arduratsua atalean, obretako laneko segurtasunaren kudeaketagatik. Sari horiek Europako Batasuneko Maizterren Nazioarteko Batasunak antolatzen ditu (2016ko azaroa).


2017.

- SmartEnCity-Koroatze auzoko proiektua aukeratu zuten Euskadi 2020 “Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza (PCTI) Planaren 2017ko 10 proiektu enblematikoe-tako gisa.
- CONTART 2018: 2017ko azaroaren 20an VISESA 3. Arlo Tematikoan aurkeztu zen: “Eraikingintza jasangarria eta kontsumo energetiko ia nuluko eraikinak”• Memoria hau lantzen ari garen unean oraindik ebatzteke dago.
- 2017ko abenduaren 11n berretsi egin zen “ALTURAKO PASSIV HOUSE BOLUE-TA-BILBON” proiektua 2018ko maiatzaren 30etik ekainaren 1era Zaragozan egingo den Eraikingintzaren Biltzarrean aurkezteko onartu zutela

2018.

- EMAS Europako Ingurumen Erregistroaren ziurtapena.
- UNE-EN ISO 9001 eta UNE-EN ISO 14001 berriak dira, arauen 2015 bertsio berrira egokituta.
- Construction21 plataformak antolatutako Green Solutions Awards 2018 lehiaketaren baitan, "Energia eta Klima Epelak", "Karbono gutxikoa" eta "Erabiltzaileen Sariak" sariak jaso ditu Bilboko Boluetako Passivhaus eraikinaren berezitasunengatik.
- Albert Serratosa Hiria eta Lurralde lehiaketan finalista.
- VISESAk PassivHaus ziurtapen zorrotza jaso du Bilboko Boluetan eraikitako 28 solairuko eraikineko 171 etxebizitzetarako (108 BOE eta 63 ES), PassivHausen Nazioarteko 22. Konferentzian. (Munich, 2018ko martxoaren 9a).

Beste urte batez, VISESA osatzen dugun pertsona guztiek berretsi egin dugu esleitu zaizkigun Egitekoa eta Ikuspenarekiko gure konpromisoa; hortaz, 2019an ere gogotsu lanean jarraituko dugu EAEko pertsonen kalitateko etxebizitza duina izan dezaten laguntzeko helburua betetzeko.



visesa